

**KULTURA KUDEATZEA VI TOPAKETAK
2019**

Kultur Kudeaketatik Bitartekaritzara

Asociación de Profesionales
de la Gestión Cultural de Navarra

Kultur Kudeaketatik Bitartekaritzara

Paradigma berrietara eta balioetara moldatzeko Kultur Kudeaketa Kultur Bitartekaritzara transformazioaren inguruko gogoeta topaketa.

2019ko maiatzaren 28an, Iruñean ospatu zen.

Editatzen du: KUNA, Asociación de Profesionales de la
Gestión Cultural de Navarra
info@gestionculturana.org

Itzulpena: Enrique Díez de Ulzurrun

Diseinua: Amore Verbum Traducciones

Edizioa: Uztailean 2020

Ideiak eta argitalpenean adierazitako iritziak bere egileen berezkoak dira eta ez dituzte islatzen ezta ere laneko zuzendariaren argitaratzailearen iritziak nahitaez.

© Edizioko eta Kongresuaren argazkietako: KUNA, Asociación de Profesionales de la Gestión Cultural de Navarra

© Irudietako: bere egileak. Irudiak eta bideoak dibulgazio helburuez erabili dira eta beren egileen dira.

Artxibo honek webetarako loturak eta bideoak dauzka.



Topaketaren Inaugurazioa	6
Bitartekaritza ikuspegi (egiazki) kritiko batetik- Salvador Martín Moya	11
Egileari buruz	24
Paradigma aldaketa liburutegietan: UBIK, adibide posible bat - Arantza Mariskal Valerdi	25
Egileari buruz	35
Bitartekaritza, parte-hartzea eta interakzio kulturala. Berrikuntzako agenda estrategikoko kultura - Jordi Pardo	36
Egileari buruz	46
Nafarroako Esperientziak: Zuk Dance Performing Arts, Ópera de Cámara de Navarra eta Jabier Landa	47
Kontatzeko forma berriak - Iker Seisdedos	60
Egileari buruz	70

Topaketaren Inaugurazioa

Rebeca Esnaola Bermejo (Kunaren Lehendakaria), José Vicente Urabayen (Caja Navarra Fundazioa) eta Adoración López Jurioren (Nafarroako Gobernuaren Kulturako Zuzendari Nagusia) kontu.

Oraingo honetan, gogoeta egin nahi izan dugu ezinbestean ibili omen behar dugun bide bati buruz: "Kultur Kudeaketatik Kultur Bitartekaritzara". Izan ere, gizartean eta ekonomian diren paradigma berriek pentsamendu forma berriak behar dituzte, gizarte kritikoagoa eta kontzienteagoa kulturaren bidez garatzen laguntzeko. Ikuspegi eta balio berriak sortu behar dira, bai eta baliabide ukiezinak ere. Ezinbestekoa da, halaber, berrikuntza eta sormena berritzea. Kultur kudeaketak bestelako erronka eta esku-hartze eremuei aurre egin behar die; hots, erronka eta esku-hartze eremu horiek hezkuntza lanarekin dute zerikusia, bai eta hizkuntza ezberdinen arteko topaguneak aintzat hartzearekin, sorkuntza guneak izatera pasako baitira. Azken buruan, publikoaren hazkuntza pertsonalarekin dute zerikusia. Jakingo al dugu egiten? Prest al gaude? Egia esan, ez dakit. Lana ez da erraza eta eskuzabaltasun handiz jokatu behar da entzuteko eta harrera egiteko, pazientzia handia kultur eragileen eta publikoaren artean bitartekaritza egiteko, eta irudimen handia ere behar da. Baina erronka oro bezala akuilagarri eta aberasgarri izanen zaigu. Topaketa hauetan, beraz, esperientziak ezagutzen saiatuko gara, eta era berean, galderak, gogoetak eta elkarrizketa egiten, eta gure egunerokotasunean lagungarriak izan daitezkeen baliabide batzuk saiatuko gara ezagutzen.

REBECA ESNAOLA BERMEJO
Kunaren Lehendakaria



Beste behin ere, Caja Navarra Fundazioak bat egin du topaketa hauekin, kulturarekin dugun konpromisoaren erakusgarri. Hori gure plan estrategiko berrian jaso dugu, gure helburuak zehaztu eta gure jokabide arauak ezarri baititu 2022ra arte. Gizartea etengabe eraldatzen ari den honetan, plan berriak zehaztu du nor garen, zer xede dugun eta nola XXI. mendeko gizarte ekintzak erronka berriak dakartzan. "Nafarroa solidarioagoa" leloak ederki islatzen du jendearekin eta haren ongizatearekin dugun konpromisoa, eta erreferentziatzeko erakunde eragintsua izan nahi dugu Nafarroan elkartasun eta gizartearen aurrerapenaren arloan, jarrera proaktibo eta berritzaileari ekinez.



Plan berriak hainbat lan-ildo ditu; besteak beste, elkarte-sarea sustatzea, nafar lurraldea kohesionatzeko bidea baita; talentua itzultzen laguntzea, arte eta kultura garaikidea bultzatzea Nafarroa osoan, eta gure lurraldeko ondare materiala eta immateriala zaintzen laguntzea. Kulturari, Civicari zentrotan indartu nahi dugu, pentsamendu eta kultura garaikidearen gunea izan dadin. Gure Fundazioak, gainera, milioi bat euro bideratzen du Nafarroako kultur ekosistemara, bi deialdiren bidez: batetik, 370.000 euro proiektuetarako, aurreko Nafarroako 40 erakunde eta elkarteren artean banatua, eta 650.000 €, Innova Cultural-en bidez, eragin handiko eta berrikuntza nabarmeneko 30 proiektuentzat.

Innova Cultural programa elkarrekin daukagu Nafarroako Kutxa Fundazioak eta La Caixa Gizarte Ekintzak, Nafarroako kultur sarea berritzeko, hala profesionala nola amateurra. Egungo ingurune konplexuan, kultur erakundeek gero eta berritzaileagoak, sortzaileagoak eta proaktiboagoak izan behar dute sorkuntza, ekoizpen eta bitartekaritza prozesuetan. Programaren bidez, kultur erakundeek eta sortzaileek nahiz artistek gure laguntza jasotzen dute asmo handiagoko proiektu jasangarriagoak eraikitzeko. Halaber, topaguneak eta heziketarako guneak sortzen ditugu, eta gure programan ari diren

arte erakundeen arteko jardunbide egokien elkarlana eta trukaketa sustatzen ditugu.

Gure Fundazioak ezagutu eta aintzat hartzen du KUNA elkarteak kultur kudeaketa eta kulturgintza profesionalizatzearen alde egiten duen lan garrantzitsua; eta topaketa hauek prestakuntza gunearen adibide ona dira, esperientziak trukatzeko eta etorkizuneko erronkez hausnartzeko. Horregatik, gure arras pozgarria da topaketa hauek finantzatzea, Kultur Departamentuarekin batera. Bukatzeko, oroitaraziko dut kultura kontzientzia egokia izan dela jende kulturadunak garaian garaiko bidegabekeriei bizkarra ez emateko. Horrenbestez, Nafarroako Kutxa Fundazioa, erreferentziako erakunde eragintsua egin nahi dugu gizartearen aurrerapenean. Ahaleginduko gara; lortuko ahal dugu.

Muchas gracias, mila esker.

JOSÉ VICENTE URABAYEN
Caja Navarra Fundazioa



Zoriondu nahi zaituztet, zuen kezkatatik eta etengabe prestatu nahi izateagatik, jardunaldiok erakusten dutenez, beti bikaintasun profesionalaren bila. Kulturen eta kultur sektoreen kudeaketak, jakina, honetan ari garen guztiok behartzen gaitu elkarrizketa nahiz begirada berriak onartzera, eta hori, hein handian, prestakuntzari esker lortzen da. Aurten, bitartekaritza hartu duzue hizpide, eboluziozko prozesu baten gisa.

Arlo askoren ekarpenaren bidez zehazten da kultur kudeaketa: ekonomia, zuzenbidea, antropologia, marketinga eta komunikazioa, soziologia, psikologia, giza baliabideen kudeaketa, estatistika, bai eta norberaren trebeziak, hala nola harreman publikoak, hizkuntzak eta ahozko adierazmena, eta era berean, jakin behar du zer kultur sektore eta artistiko kudeatzen dituen. Beraz, kultur kudeaketa diziplina-anitza da; beti egon beharko du ebaluazioan eta zabalik sektoreek nahiz lurraldeen, eta publikoek, jakina, dituzten eskakizun berrietara. Bitartekaritzak beste tresna bat izan behar du. Bitartekaritza, elkarrizketa eta bidelagun gisa, ikaskuntza-tresna gisa, eta irakaskuntza-tresna ere egungo publikoentzat eta potentzialentzat, artistentzat eta lurraldeentzat. Eta kultur kudeaketako profesionalok bitartekaritzaren ardatz izan behar dugu, bitartekaritza zeharkakotasunez txertatu behar dugu gure lanean. Elkar eragitea, erraztea, elkarrizketa, enpatia, kudeaketa eraginkorra, horra bitartekaritza lanen oinarriak. Edward Sapir antropologo estatubatuarrek definitu egin zuen jada XX. mendearen hasieran:

“Kulturaren egiazko lekua kultur elkarreraginak dira; kulturak elkarrekintza eta eboluzio baitira; azken buruan, komunikazio eta bitartekaritza dira”.

Eta handik mende batera, 2019ko urtarrilean onetsitako Nafarroako Eskubide Kulturalen Legearen 9. artikulua kultur bitartekaritza aurreikusi du arte eta kultur adierazpenak publikoen eskura jartzeko, eta jendeak haietan parte hartzeko. Horrenbestez, berriz ere ageri da elkarrekintza funtsezko ardatza dela kultur kudeaketan. KUNA zoriondu nahi dut, gai hau aukeratu izanagatik.

Zoriondu nahi zaituztet, Landarte programaren proiektu bat zuen aurkezpenen artean egokitu duzuelako. Programa berritzailea, bitartekaritza bere nortasunean bete betean gertatzen baita. Artistak, biztanleak eta lurraldeak elkartzen dira sorkuntza artistikoaren alde, auzolanean egindako proposamenak ikusgai direla modua. Javier Landa, Petilla de Aragonen izandako lanaz arituko da, Ramón y Cajalen lanean murgiltzen delarik.

ADORACIÓN LÓPEZ JURIO

Nafarroako Gobernuaren Kulturako Zuzendari Nagusia

1. TXOSTENA

Bitartekaritza ikuspegi (egiazki) kritiko batetik

SALVADOR MARTÍN MOYA

*Museo Thyssen-Bornemisza*ko Hezitzailea

Thyssen-Bornemisza Museo nazionaleko hezitzailea naiz. Gauza asko egiten ditut eta hori zaila da azaltzea. Jendeak uste du hurrekin ari garela. Nik gauza asko egiten ditu: bitartekari eskolaume, familia, gazte, nerabe eta helduentzat; irakasleen eta museoetako etorkizuneko profesionalen prestakuntza; Thyssen Museoko hezkuntza arloa, arlo digitala; Nubla bideojokoa, oso proiektu berezia; lau urtez behin hezkuntzaz eta museoez egiten diren biltzarrak.

Ziur aski, denek Thyssen-Bornemisza Museo nazionala ezagutzen duzue. XIII. mendtik XX.era bitarteko Europako artearen historia bildua

dago. Margotzeko era nola aldatu den ikusiko dugu, baina baita artelanez harreman moldea ere. Museo publikoa da, Estatukoa, duela 25 urtetik gora, nahiz jende askok uste duen museo pribatua dela, duela 25. Jatorrian, munduko arte bilduma



pribaturik garrantzitsuena izan zen, eta Espainiako ondare historikoak zituen hutsune handi batzuk bete egin zituen; inpresionismoa, XIX. mendeko pintura amerikarra eta XX. mendeko abangoardia batzuk.

«Museoan lanean hasi nintzenean, zerrenda bat egin nuen: nola gustatzen zait museoan pentsatzea?».

Museoan lanean hasi nintzenean, zerrenda bat egin nuen: nola gustatzen zait museoan pentsatzea? Zerrenda aldean daukat beti, zerbait aldatzen dut, baina beti jotzen dut zerrenda horretara museoko hezitzaile gisa errealizatua sentitzen ote den ikusteko. Gure asmoak edo xedeak betetzen ari diren edo ez ikusteko.

NOLA GUSTATZEN ZAIT MUSEOAN PENTSATZEA?

Lehen ideia atzean utzita, hau da, zer den museoa edo zertarako balio duen, hurrengo horixe izan zen: nola gustatzen zait museoan pentsatzea? Modu askotara: jendea bizi den toki gisa, eta bertan, jendeak irri, negar, eztabaida egiten du, haserretzen da, gauzak gertatzen dira. Museoa denboraz pentsatzea gustatzen zait, gorputzarekin, 0 urtetik 3ra. Sudurrekin, krisialditik, arlo politiko, sozial eta abarretik. Intimitatearen begiekin, lurretik, 7, 17, 25, 49 urteetarako... Museo ekologikoa pentsatzea gustatzen zait, generotik, jarleku batean eserita, indarkeriatik, irudimenerako, zure historiari... Immaterialetik, etxetik, konplexutasunetik, Google-tik. Jolasetik, sabaitik, alaitasunetik...

«Museoa ezjakintasunetik, ipurdiarekin, ekintzarekin eta eraldakuntzarekin pentsatzea gustatzen zait.»

Thyssen museora joatean, begiratu sabaira. Moneok egina da. Ikusgarria da. Ezjakintasunetik, ipurdiarekin, ekintzarekin eta eraldakuntzarekin, senetik, arlo publikotik eta aniztasunetik, alegiatik. Posible den hartatik, desiotik, erreala denetik. Zerrenda hori aldatzen da, ñabartzen, baina nire lana pentsatzeko erreferentzia da. Nola pentsatzen dugun eta nola ikuste dugun geure burua museoko hezitzaileok, kultur bitartekariak.

Askoz ere museo gizatiarragoa pentsatzea gustatzen zait. Adibidez, Kukparen lan garaikide hau ikusten dudanean ([La Taladradora](#)) gogoan daukat bi pertsonaren arteko solasaldia. Hona hemen:



Aurorak bere bizipena, bere historia, proiektatzen du museoan lan batean. Eta orain guztiz bestela ikusten dut nik lan hori. Haren historia proiektatzea da, genero-indarkeria hori bezalako obra batera.

Eta horren eraginda, haxe galdetzen diot neure buruari: Nola pentsa ditzakegu museoak, gure kezka nagusien artean feminizidioa, ekologia edota etxegabetzeak daudenean? Edota Espainiako eskola abandonuaren tasa oraindik ere Europako handien artean dagoenean, kulturguneak jende askorentzat betatuak daudenean, hezitzaileen eta kultur bitartekarien lana prekarizatu dagoenean... Nola lortu museoak, artea eta kultura egiazko tresnak izatea jendearn eta norberaren garapenerako? Thyssen Museoa Diputatuen Kongresuaren ondoan dago, eta han denetarik gertatzen da; astero manifestazio bat. Eta barrenetik oihuak entzuten dira. Nola pentsa dezakegu museoak, hormaz bestaldean, 3 metrora doi, hau gertatzen ari denean?



Baina aldi berean zer muga ezartzen dizkigute kultur erakundeek? Zer muga ezartzen dizkiogu geure buruari museoko profesionalak garen aldetik, eta zer muga ezartzen ditu publikoak museoan erantzun bat edo gizartean ahots bat bilatzean?

THYSSEN MUSEOA ETA EDUCATHYSSEN

EducaThyssen da hezkuntza arloko webgunea. Bestelako web-ataria da eta berez da hezkuntza-proiektu bat eta halaxe kudeatzen dugu. Ez da informazioa emateko; weba ekintzarako, sorkuntzarako eta eztabaidarako lekua baita (hezkuntza arloko kideak erakusten ditu). Museoan ez dago gidaririk, hezkuntza arloa baizik ez, bitartekaritza eta hezkuntza proposamenak garatzeko. Denok bisita mota oro egiten ditugu denetarik publikoarentzat. Gutariko bakoitzak, gainera, hainbat proiektu esleituak ditu, baina denok proiektu guztietan parte hartzen dugu.



Hona hezkuntza arloko **Ekintza Mapa**. 9 Ekintza Gune dira: Museo Eskolan, Eskola Museoan, eta horrela hurrenez hurren: Gazteak, Helduak, Unibertsitatea, Hezkuntza Digitala, Hezkuntza museoetako profesionalentzat eta Gizarte Hezkuntza. Gune horietako bakoitzean badira programak, jarduerak, laborategiak eta proiektuak. Orain, 85 bisita mota ditugu, eta hainbat proiektu eta programa.



Duela 15 urtetik hona, publikoarendako bisitak egiteaz gain, herritarrekiko topaketak egiten ditugu. Hainbat laborategi sortu genituen: sormenezko pentsamendua, sektoreko eragileekin batera lantzekoak: artistak, irakasleak, teknologiako espezialistak. Zaharrena Gizarte Hezkuntzakoa da, hainbat kolektiborekin. Musaraña irakasleentzako proiektua da. Nubla, bideojokoak, gazteak eta arterako proiektua; ARCHES, teknologia eta irisgarritasuna. Alfabetoak, hizkuntzak eta artea; *Educación en museos*, museoetako profesionalentzat da, eta Nosotras genero proiektua. Eta Erakusketen proiektua, erakusketa jarduerak egiteko. Azkena, *Lección de arte* izan da, egiazki iraultza guretzat eta museoarentzat. Laborategi batzuk aipatuko ditut, museoak zer diren ulertzeko, pentsatzeko eta lan egiteko gure modua aldatu dutelako. Laborategiak:



MUSARAÑA NUBLA ARCHES ALFABETOS EDUCACIÓN Y ACCIÓN SOCIAL EDUCACIÓN EN MUSEOS NOSOTRAS PROYECTOS EXPOSITIVOS

MUSARAÑA

Musaraña irakasleendako proiektua da, irakasleekin lan egitea Museoaren helburu nagusietako bat izan baita. Lehenik, bilduma erakutsi genien ikuspegi historikotik eta artistikotik lantzeko, 1994tik 2007ra, begirada pintoreengan eta arte mugimenduetan pausatuta. Gero, 2007tik


2009ra aldaketa bat egin genuen, teknika artistikoak lantzeko, artisten laguntzarekin. Ikastaroak ere egin genituen espazioa, kolorea, argia eta abar lantzeko,

educaTHYSSEN



ikastaro tradizionalagoak. Irakasle batzuk gurekin aritu dira 20 urtean lankidetzan. Espezialista batek prestakuntza ematen zuen, inolako elkarrekintzarik gabe. Informazio eman eta irakasleek eta beren ikasleek jasotzen zuten.

2009tik aurrera, ordea, dena geldiarazi eta urtebeteko gogoeta egin genuen, metodologia ardatz hartuta. Gogotik mintzatuak ginen abangoardiez eta abar. Arras bestelako metodologiarekin lan egin beharra zegoen, eta Musaraña proiektua sortu zen. Eta beste modu batez gaude Museoan. Badugu, **Comienzan las Clases** jarduera. Hara, asteburu batez museoan ixten gara irakasleekin batera eta tailerrak nahiz eztabaida mahaiak egiten ditugu pentsatzeko. Urtean barna garatuko ditugun eragileak pentsatzen ditugu. Aurtengo eragilea Iraultza izan da. Nola diren hezkuntza eta artea iraultza-bideak ikasleentzat, eta nola den artea aldarrikapenerako bidea. Irakasleek museoan egoteko modua, izaera eta jarrera aldatu dituzte. Proiektuaren bidez, lurrari eragin nahi izan diogu, aukera berriak aurkitu, ezegonkortasuna probatu mugimendua izateko. Ez dugu errezeta itxirik eman irakasleekiko lan aukera baizik. Orain, 200 irakasle ditugu gurekin etengabe lanean. Eta museoan egoteko eta izateko modu hori aldatu da. Irratia egiten dugu aretoan, *performance* aretoan, piknikak museoko aretoetan. Gure espazioarekin eta gure gorputzarekin lan egiten dugu.



«Lurrari eragin nahi izan diogu, aukera berriak aurkitu, ezegonkortasuna probatu mugimendua izateko».

Ekologia dugu mintzagai, hondakinak, ideiak sortzeko lan egiten dugu, enpatia sortzeko, hesiak desegite aldera eta, hortik aurrera, denok elkarrekin eraikitze aldera. Iraultza, kulturarako eskubidea, gorputza, argia, indarkeria, oldarkortasuna ditugu solasgai. Hainbat ekimen ditugu ikasturtean zehar, artistekin... Bukaeran, irakasleek aurkeztu egiten dute zer proiektu landu dituzten ikasturtean. Udako irakaskuntza laborategia dugu... eta dena horizontalean egiten dugu. Museoak ez du deus inposatzen, baizik eta haiekin lan egiten dugu baliabideak, jarduerak eta ideiak garatzeko, haien ikasgeletan ezartze aldera. Musaraña proiektuan, hasieran, museoan edota ikasgeletan edota hirian egoteko eta izateko era nola aldatu izan genuen kezka nagusietako bat. Museo batean lan egiten duzuenok badakizue jendeak zer egiten duen: txartelera hurbildu, urrundu, buruarekin baietz egin, eta itzuli, eta jarraitzen du. Gu hori aldatzen saiatu gara. Horregatik, klaseen hasiera bat da gure gorputzarekin lan egitea, gure gorputzaz ohartzea, eta ohartzea museoan dugun izaeraz eta egoteko moduz, gorputzarekin gozatze aldera, eta gu presente egiteko bai museoan, bai bizitzan.

Izaera oro gorputzekoa da. Inork ez dezake bizitzea, heztea, jolastea, haztea, maitatzea pentsatu gorputzik gabe. Hortik abiatuta, asteburu osoa ematen dugu gorputza museoan, ikasgeletan eta bizitzan presente egiteko.

Tailerrak egin, eta irakasleekin aunitz eztabaidatzen dugu. Arras engaiatuak daude museoaren bizitzan. Musaraña proiektua garatzeko

atal garrantzitsua arte-proiektu ibiltariak dira. Proposamenak dira, eta gero bakoitzak nahi duena egin dezala. Zuzenean eginak daude irakasleekin. Museoko ikastetxeetara iristen diren proposamenen eraikuntza dugu langai. Proposamen bat, adibidez, [La Big Valise, hots, Joseph Cornell eta Kurt Schwitters-en obra](#) batean inspiratua. Ikastetxeei proposatzen diegu beren mundua kaxa batean kontatzea, eta zaila da zinez hori egitea. Ikastetzez ikastetxe harik eta maleta handi bat osatu arte. Obra kolektibo bat da:



[La Kepler](#) izenburuko motxila ere garatzen ari gara. Museoa oinarrituriko joko handi bat da, artearen eta musika elektronikoaren artean jokatzeko. Ikastetzez ikastetxe ibiliko da ikastetxe horietako soinuak harrapatzeko.

Beste proiektu bat Iruñeko Nuestra Señora del Huerto ikastetxeko Nerea Sanz irakaslearekin gauzatu dugu: Cartas a un Cuadro. Espainiako hamaika eskolatan postontziak paratuko ditugu, ikasleek eta helduek gutunak bidaltzeko Thyssen museoko obrei, eta gero, museoan bertan ikusgai jartzeko, museoa ikasgeletara eramate aldera eta ikasgelak museora.

Proiektu horrek **gauza asko eta asko erakutsi** dizkigu: Adibidez, errezetatik ihes egitea eragileak sortzeko. Gureak proposamenak dira, eta bakoitzak nahi duena har dezala ikasgelan garatzeko. Edo pentsamendu artistikoak diziplina bakoitzean bizitzen uztea. Hirugarrena: malguak izatea, hazte aldera. Irakasleak boluntarioak dira, beren borondatez egiten dute inolako ordainsaririk jaso gabe, eta ez dago krediturik. Kezkatik eta ustekabetik ikastea. Ahotsa ematea ahotsa ez duenari. Elkarrekiko zainketak.

Asko eta asko ikasi dugu Musaraña proiektuaren bidez. Ez dakigu zer gertatuko den, zeren, etorkizun onetan pentsatuta saiatzen baikara eraikitzen orainaldi ezberdinen bitartez. Urte asko joan dira Musaraña proiektua abian jarri genuenetik, eta aurtan, berriz ere geldiuena eginen dugu gogoeta egiteko eta argitalpen bat plazaratzeko: hots, liburu bat irakasleekin batera, urteotan ikasgeletan zer gertatu den ikusteko, eta egin dugun guztiak museoa gure ikasleei komunikatzeko moduan zer ondorio izan duen jakiteko.

NUBLA: ARTE ETA BIDEOJOKOETARAKO LABORATEGIA KULTUR SORTZAILEENDAKO

Zazpi urte daramagu, eta ahalegin handia eskatzen du. Espainiako 1.500 museoek digitalizazioari heldu diote. Gu geure webgunea eginez hasi ginen hezkuntza arloa lantzen, bai eta aplikazioak eta joko asko ere. Duela zazpi urte bideojoko bat egiteko aukera izan genuen. Teknologia ez da gure xedea, gure helburuak lortzeko bitartekoa baizik.

*«Teknologia ez da gure xedea,
gure helburuak lortzeko bitartekoa baizik».*

Hainbat arrazoi izan genituen, bideojokoarekin lan egiteko. Huraxe lantzeko gogoia nuen:

1. Kultur fenomeno gisa.
2. Adierazpide eta narrazio-bide gisa.
3. Jakin nahi genuen ea bideojokoek zabaldu ote ditzaketen hezkuntzaren eta museoaren kontakizunak.
4. Nola eraldatu dezake arlo digitalak errealitatea?
5. Zein da pantailen hizkuntza?
6. Lortu al dezakegu jendea hunkitzea bideojokoetako istorioekin?



Eta Huizingaren aipu batek ziurtatu zidan bideojokoak kultur eragina izan dezakeela bideojokoekin jokatzen duen jendearengan:

«Bideojokoa ikuskizun ederra denean, haren balio kulturarako ematen da, baina gisako balio estetikoak ez da aski jokoak kultur tankera har dezan. Balio fisikoek, intelektualek, moralek edota espiritualek kulturaren planora igo dezakete jokoak. Zenbat eta egokiagoa izan gizabanakoaren edo taldearen bizitza areagotzeko, hainbat eta gehiago igoko da plano horretan (kultur osagai gisa)».

Huizinga, 2008

Museoek, oro har, joko asko egin dituzte; asko erailketekin eta lapurretekin lotuak; ez dakit zergatik. Guk ere jende aunitz hil dugu eta Thyssen museoko margolanak lapurtu. Bideojokoetako betiko narratiba horretatik atera nahirik, eta duela urte asko egindako proiektu bat izan zen gure abiaburua: *Aquí pintamos todos*. Irakasleekin hitz egin, ideia landu, baina ez genuen dirurik izan bideojokoa egiteko. Orduan, laborategi txiki bat hasi ginen osatzen bideojokoez eztabaidatzeko, bideojokoez gure Muesoari zer ekarpen egin ote ziezaiokeen jakiteko. Bideojokoak Gradu ikasleekin bildu ginen, irakasleak ere engaiatuta, bideojoko bat pentsatzeko, baina ez genien nola. Hemen erakusten ditudan batzuk probatu egin genituen, bestelako narratibak kontatzeko balio zutenak. Gauza asko egin genituen, eta bat-batean, PlayStation Talent izeneko programa bat iritsi zen. Izan ere, Sony PlayStation-ek talentuak inkubatzeko programa bat jarri zuen abian Espainian. Haien atean jo, eta hara, gure bideojokoa egiteko proiektua lagundu egingen zutela

«Bideojokoetako betiko narratiba horretatik atera nahirik».



*indie
jaurtiketa
hub
narratiba
Art Academy
talentuak
tailerrak*

esan ziguten. Eta bideojoko bat egiten hasi ginen, baina ez genekien nola. Gurekin neska-mutilak genituen gidoiak idazten, marrazkiak egiten, artistak, filosofoak, hura sekulako fantasia izan zen. Eta han tailerra egiteaz gain, gazteak beren ordenagailuekin iristen ziren. Beraz, museoa kultura sortzeko gune bat izan zen. Dagoeneko, bi bideojoko ondu dituzte museoarekin eta Sony PlayStationekin. Beraz, baliagarri izan zaie. Batzuek musika eta bideojokoaren mundurantz jo dute; beste batzuek narrazio eta bideojokoaren mundurantz; batzuek artista izan nahi dute, gure Nubla proiektuan parte hartuz geroztik.

Bi bideojoko egin ditugu. Lehena txikia zen, eta hamaika oker egin genituen. Makina bat kritika jaso genituen, baina hura esperimenezko proiektua izan zen. Hura prozesu hezigarri bat izan zen, eta esanguratsua programatzaileentzat, bilduma nik baino hobeki ezagutu baitzuten.

Oroimena eta sormena landu nahi izan genituen. Ikasbide gertatu zitzaigun. Eta Sonyk proposaturik, bideojokoaren bigarren zatia egin genuen. 90 lagunek parte hartu dute bi bideojokoaren sorkuntzan, 7 urtean. Gazteek munduko bideojokoaren azoka nagusietan parte hartu dute.



Gauza asko eta asko ikasi ditugu, hots, museoak askatasun gunea izan behar duela, eta denek ekarpenek balio bera dutela. Ikasi dugu jende guztiak izan behar duela bere lekua, denbora behar dugula hazteko. Horixe da kultur kudeaketaren gaitz handietako bat: askotan, ez da proiektua garatzeko astirik izaten, eta astirik gabe, ez gara inora ere iristen, ez baitugu ebaluatzeko astirik izaten, ondorioak ateratzeko astirik izaten, eta denbora funtsezkoa da proiektuak hazteko. Eta ikasi dugu komunitatea egiten eta geure lan-prozesua garatzen. Bigarren bideojokoa *M. La ciudad en el centro del mundo* izan zen, luzeagoa, eta askoz ere narratiba konplexuagoa izan zuena: oroimena,

hiria, generoa, hiriko gatazkak eta beste izan genituen solasgai. Bilduma osoa inplikatzan saiatu ginen, gai egiazki garrantzitsuak, esanguratsuak, aztertzeko, hala bideojokoa egiten dugunontzat nola jokatu dutenentzat. Ez genekien zer egiten genuen, baina lortu egin genuen. Trailerra hemen dago:



Bideojokotik abiatuta, tailer mordo bat egin dugu.

ANIMALARIO

Eta gainera, beste bideojoko mota bat garatu genuen, *Animalario* izenekoa, *Lección de Arte* erakusketatik abiatuta. Hartan, hauxe galdetzen genion jendeari, "zer bisitari mota zara?". Bisitari motak animaliekin identifikatzeko. Hau da, geure buruari galdetzen genion nolakoa izanen ote zen bisitari arraina, inurria, tximeleta eta matxinsaltoa. Oso joko erraza da, baina museoan nolakoak garen eta nola gauden pentsarazten diguna.



HEZKUNTZA ETA SOZIETATE-AKZIOA

Bestalde, Hezkuntza eta Sozietate-akzioa laborategia daukagu, guztietan zaharrena, museoa eta gure hezkuntza-ekintza modu ezberdin batez lantzeko. Hasteko, galdera asko jarri genituen mahai gainean: hesiak oztupo fisikoak soilik ote ziren; museoan nola ikasi dezakegun; nola lan egin gizarte eta osasun arloko profesionalekin;

nola garatu sare lanak hainbat kolektiboren artean, nola garatu inklusioa egiatzkoa duen museo bat. Proiektu horretan, propio diseinatzen da kolektibo bakoitzarentzat bisitaldia, kolektibo bakoitzarekin bilduta. Oso sakon lan egiten dugu Madril hiriko eta Erkidegoko hainbat kolektiborekin. Dagoeneko, 1.000 kolektibo dira.

Bukatzeko. Gustatzen zaigu pentsatzea museoak egungo errealitate eta etorkizuneko iruditeria poetikoagoak eta esanguratsuagoak sor ditzakeela eta sortu behar dituela. Beti Duchampen aipu hau erabiltzen dut:

«Iritzi ororen kontra, ikusleek egiten dituzte margolanak; ez, ordea, pintoreek».

Museo hutsak ez du deusetarako balio; izan ere, bilduma bat mantentzeko, beste modu batez mantendu genezake.

Egileari buruz



Salvador Martín Moya

Málaga Unibertsitatetiko Historiako Lizentziaduna. Carlos III Madrilgo Unibertsitatetiko Kudeaketa Kultureko masterra. Camilo José Cela Unibertsitatetiko eskola-inguruneetako ikerketa didaktiko eta psikopedagogikoan aurreratutako ikasketak. Ziurtagiria Málaga Unibertsitatetiko Gaitasun Pedagogikoko. Hezitzailea eta Thyssen-Bornemisza 2011tiko Nazio-Museoaren proiektu digitalak-hezigarriakeko kudeatzailea.

2. TXOSTENA

Paradigma aldaketa liburutegietan: UBIK, adibide posible bat

ARANTZA MARISKAL BALERDI

UBIK-Tabakalerako Sorkuntza Liburutegia Arduraduna

Eskerrik asko gu gonbidatzeagatik. Ez da ohikoa izaten gu liburutegiok gure liburuzainen topaketetatik ateratzea esparru zabalago batera joateko. Nik azaldu nahi dizuet zer paradigma-aldaketa bizitzen ari garen liburutegietan, eta gure kasuan, UBIK liburutegian; aldaketa hori nola garatu, pentsatu eta egokitu dugun. UBIK adibidea izan liteke. Gure ustez, bakoitzak bere proiektua egin behar du.

Tabakalera 2015eko irailean ireki zen eta kultura garaikidea du ardatz. Liburutegia 2016ko martxoan zabaldu zen. Batetik, eraikina da, eta bestetik, kultur eta bizikidetzaren arloko proiektu bat beste kultur erakunde batzuekin batera. Hasieran, hainbat erakunde geunden



batera, baina orain, dena abian jarri ondoren, proiektuaren beste fase batean gaude. Hainbat ekintza lerro ditugu: artisten egoitzak, artistendako sorkuntza bitartekoak, pantaila, zinema, ikus-entzunezkoak... erakusketa-gelak.. Eta [Hirikilabs](#) edo herritarren laborategi bat; hots, hainbat tresna ditugu eskura, ahalduntze, garapen eta ikaskuntza arloko elkarlanerako proiektuak abian jartze aldera. Eta eraikinean, halaber, [UBIK dago, Tabakalerako Sorkuntza Liburutegia](#).

ZERGATIK HITZ EGITEN DUGU SORKUNTZA-LIBURUTEGI BATEZ?


Gurea sorkuntza liburutegia da, sorkuntzarako kultur zentro batean gaudelako. Bertan, badira kultura garaikidea ardatz duten tresnak, programak eta proiektuak daude, arte sorkuntzan laguntzen da, bai eta herritarren sorkuntzan ere, eta gure bilduma, gainera, espezializatua dago kultura eta arte garaikidean. Liburutegi publikoa eta jende guztiarentzat da, baina espezializatua gaiari dagokionez, eta bere gai-lerroak Tabakalerako programan garatzen diren ekintza-lerroekin bat daude. Guk ez dugu irakurketa publikorik egiten. Horretarako badira Donostian 14 liburutegi edo gehiago. Gure ardatza kultura eta arte garaikidea da.

Nola iritsi gara honaino liburutegian? Gizartea aldatu da, beharrak aldatzen dira eta kultur azpiegiturek ematen dizkieten erantzunek ere aldatu behar dute, eta liburutegiak ezindu atzean gelditu. Egia da liburutegiak bilakatu eta kultur zerbitzuetara egokitu egin direla bizitza sozialean eta historian. Oso itxiak ziren, liburuak ere ez ziren sarbide librekoak. Baina gero, bai. Hura mugarrria izan zen.



Bilakaera horretan, DOK Delf liburutegia aipatu behar da; gazte batzuk liburutegian bideojokoetan jokatzeko, eta neure artean esan nuen, "hori gustatzen zait". UBIKen haxe dugu: edukiak eta tresnak ditugu, eta baita ikasten, zerbait sortzen eta elkarlanean ari den talde bat.

Itxitako zentro zaharrak



Gaurkoago liburutegia



DOK liburutegia, Delft. 2009



Taldea UBIK-ean sortuz

PARADIGMA-ALDAKETA

Beraz, paradigma-aldaketa hori bizitzen ari gara, hemen dago, eta liburutegiak horri ari dira gogotik lantzen. Zein da funtsezko aldaketa? Orain arte, liburutegietan helburu edo zerbitzu nagusia liburua zen, objektua, edukia, zaintza. Eta orain, pertsonak dira. Beraz, gauza asko birpentsatzera behartuak gaude liburutegietan, baina oro

har, kulturgintzan ere bai. Pertsona erdigunea da. Aldaketa horren barruan, lehenago, artisau gizartea genuen, eta orain, aldiz, industrializazioaren eraginez, egintzaileen gizartea dugu *maker* gizarte bat, baina egintzaileak gara. Pertsonok egiten dugu, eta eginen badugu, sortuko badugu, ezagutza, laguntza eta tresnak behar ditugu. Ba al da liburutegia baino leku hobea?



«...orain liburutegietan helburu pertsonak dira. Beraz, gauza asko birpentsatzera behartuak gaude kulturgintzan ere bai».

Nola diseinatu etorkizuneko liburutegiak? Gakoa: denbora. Gelditu, hausnartu, doitu, eskuen artean duguna birzehaztu. Orain arte egindako guztiak ez dugu zertan eginik. Hori guztia zalantzan jarri eta etorkizuna planifikatu. Guk denbora izan genuen pentsatzeko, eta gauza asko birplanteatu genituen. Liburutegiak jendearen eta erkidegoen zerbitzurako diseinatu behar baitira, ezagutza eta kultura jende guztiarengana eramateko. Ikaskuntzaren kultura berria oso argia da: egi eta ikasi, ikasi bizitzan zehar, irudimenak dena badezake. Horrela ari gara UBIKen lanean:



UBIKEN ADNA

UBIKen pentsatzeko hartu genuen denbora hartan, UBIKEn ADNa zein izan behar zen pentsatu genuen. Ez gara helburuez mintzo, gauzak egiteko moduez baizik. Denbora eman genuen horretan, eta gure ADNean pentsatzen eman genuen denbora baliagarria zaigu gure eguneroko erabakiak hartzeko, bide onetik ote goazen ikusteko, zeren, kultur erakunde guztietara makina bat gauza interesgarri iristen zaizkigu. ADNa lagungarria zaigu interesgarria dena eta egiazki gauza guztietarako garrantzitsua dena bereizteko. Guri balio diguten kontzeptu batzuk ditugu. Bakoitzak bereak definitu behar ditu, baina nahiko unibertsalak dira eta paradigma berriari erantzuten diote:

1. **Bokazio publikoa.** Jende guztiarentzat.

2. **Hirugarren gunea kontzeptua.** Ez dakit gainerako kultur esparruetan oso garatua ote dagoen. Liburutegietan, bai, Europa iparraldeko liburutegietako lan-ildotik abiatuta, batez ere. Zure etxetik edo lantokitik haratago, zeure egiten duzun gunea hori da. Gure helburua da liburutegia hirugarren gunea edo leku hori izatea, ni eroso nagoena. Gero eta familia gehiagok esaten digute: «Lehenago, larunbat arratsalde euritsuetan, ez genekien nora jo eta merkataritza-gunera joaten ginen, eta orain, liburutegira gatoz. Gure gunea d».

3. **Esperientzia kontzeptua.** Liburutegira etortzea esperientzia izan dadila.

4. **Baterako sorkuntza-lana, elkarlana.** Gure proiektuak batez ere taldeetan oinarritzen dira, zerbait egiteko elkartzen diren pertsonengan. Eta ildo horretan, oso garrantzitsua da adinetan zeharkakotasuna izatea, gure gizarte gero eta konpartimentuagoa gainditzeko: hau da, jarduerak egiten dira haurrentzat, gazteentzat eta zaharrentzat. Baina horrek ez du horrela funtzionatu behar. Izan ere, ezagutzak transmitituko badira, jendearen artean harremanik izanen bada eta elkarlanik





izanen bada, adina zeharkakoa den guneak eta jarduerak eskaini behar ditugu, denok baitugu zer ekarria edozein kolektibotan. Gure tailerrak 16 urtetik aurrerakoak dira, adin mugarik gabe. Zoragarria da jarduera batzuetan 16 urtekoak aritzea 42ko eta 87 urteko jendearekin.

5. **Lankidetz**a, arrakastaren gako: denok egiten dugu ekarpena.

6. **Erantzuna unean bertan**. Liburutegiko zeregin garrantzitsuena hara joaten den jendea artatzea da. lehenik, zerbitzua dago, erantzutea.

7. **Berrikuntza**: ez du mugarik. Irudimena... Dena da egingarri, bitartekoak jartzen baditugu. Kontsola sekulan hartu ez duen jendeak kontsolan jokatzea lortzen dugu, eta hara, baten batek hauxe esaten dizu: "orain bilobarekin jolastu naiteke, ikasi dut".

8. **Software libre**aren filosofia. Hau da, guztion artean egiteko modua da: parte hartzen dugu, elkarlanean aritzen gara, gure ekarpenak egin, eta guztiontzat da. Software libreko tresnak aukeratzen ditugu. Gainera, liburutegiak berak edo erabiltzaileek edukia sortzen badute, molde libre ematen diogu lizentzia.


9. **Eleaniztasuna eta kulturantzitasuna**. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez lan egiten dugu. Tresna guztiak euskaratik gainerako hizkuntzetara garatu ditugu. Hizkuntza ez dadila muga izan: gu egokitzen gara.

10. **Bitartekaritza**, arrakastaren gako. Bitartekaritza, laguntza gisa.

11. **Beta Fase** iraunkorra, hau da, hartu denbora geure burua ebaluatzeko, hobetzeko. Beti bada zer hobetu.

Hitz batez, horra UBIK Liburutegiaren ADN-a. Guretzat

oinarrizkoa da. Birpentsatzen ari den kultur proiektu orok ariketa hori egin beharko luke. Eta liburutegi barneratzailea izatea, denondako liburutegia.




Ubik-baita liburutegi integratzaileko proiektuaren barruan lantzen dugun taldeak stop motion-a hau egin zuen. Orduan, liburutegi integratzailea da, inklusiboa... inongo jarduerarik ez inorentzako zerbitzurik tokian ixten ez dugun.

ADNaren definizioan, ez naiz mintzatu, ez UNESCOk Liburutegi Publikoetarako duen Gutunaz, ez estandarrez. Gure ustez, errealitatea lantzeko paradigma haratago doa.

Gero, ADN definitu ondoren, praktikan jarri beharra zegoen. Hemen **bitartekari kontzeptua** heldu da; guk bitartekari esaten diogu, baina laguntzailea, bidelaguna izan liteke. Zerbitzua eta laguntza ematea, horixe eskatzen eta behar duen jendeari. Liburuak edo filmak erreserbatu daitezkeen bezala, bitartekarien denbora ere erreserbatu dezakezu: "Bideo bat editatu nahi dut, baina ez dakit nola. Laguntza behar dut". Ez dugu klase magistralik ematen. Tailerretako helburua ere ez da "ikasi *photoshopa*", baizik eta "argazkigintza-tailerrean hirian barna ibili, denetariko irudiak hartu, editatu, *wikidata*-ra igoko ditugu, eta gianera, lizentzia libreak zer diren ikasiko dugu". Helburua prozesua baita.

ESPAZIOAK

Espazioak: funtsezkoak dira bitartekaritzan. Beharrei erantzuteko. Jende guztiak ez du eserita eta mahai batean egon nahi. Espazioek, altzariek, malguak izan behar dute, eta erabiltzaileen eskaeretara doitu behar dira; eskatzaileen eskaeretara egokitu behar dira.



Mostradorerik ez. Gure erabiltzaile eta herritarrenganako bitartekaritzan, hurbilketan, okerrena mostradoreak paratzea da. Urruntzen zaitu. Gainera, aurrean dagoen pantailak niri begirutzen badit eta ez erabiltzaileari, zerbaitek huts egiten du. Guk ez dugu mostradorerik. Langileok ez dugu postu estatikorik. Lan-tresna tablet bat da eta liburutegian zabilta batetik bestera. Mostradorea hesia da. Bestalde, liburuteko katalogo-zenbakiekin askotan galtzen naiz, eta ni galtzen banaiz, gremiokoa ez denak nola aurkituko du? Guk koloreak erabiltzen ditugu jende guztiarentzako. Beti pentsatu behar da nola erabiliko duen herritarrak zerbitzua, eta ez nik, hau da, teknikariak.. Kasu honetan, guk beste signatura-mota bat erabiltzea erabakitzen dugu, koloreak mundu guztirako erabiltzea. Umeentzat ez soilik.



Behaketa ere hurbilketarako tresna da, kudeaketaz haratago doan bitartekaritzarako. Liburutegiko bulegoa erdigunean dago. Behatzeak informazioa oso beharrezkoa ematen dizu eguneroko



erabakiak hartzeko. Ez du balio beste solairu batzuetan, giltzapean, ezkutatzeak.

Entzutea. Gure erabiltzaileei entzutea. Iritzia ematea, erantzutea. "Badago bakarrik dagoen pertsona bat. Jolastu nahi du, baina ez du zerekin. Eseri eta jolasten gara". Erabiltzailearen esperientziaz jabetzea.



Bukatzeko, Benitoren bideoa emanen dizuet:

Egunkaria irakurtzera etortzen da. Gure liburutegiak ez du egunkaririk, baina beti saiatzen gara erantzuten.

– «Ez dugu egunkaririk baina internet bidez kontsultatzen erakutsiko dizugu».

– «Ez kait».

Eta joan zen. Bi egunera etorri zen:

– «Aizu, hobeki pentsatu dut...».

Lan egin zuen, ikasi, eta orain adineko beste batzuei erakusten die. Tailerrak, gainera, espazioan bertan ematen dira, ez dago tailerrak emateko ikasgelarik. Zergatik ez? Tailerrak toki itxi batera eramaten baditugu, tailerra ematen dela ez dakienak ez du sekulan jakingo. Ez da deus gertatzen. Ez da eskandalua. Bitartekaritza da tresnak eskura jartzea, bai tresna fisikoak, bai tailerrak, bai denbora, bai disponibilitatea.

Garrantzitsua ere bada: kolektiboekin eta pertsonekin elkarlanean aritzea. Hamaika mila proiektutan gabilta, bai zinemaldiarekin, bai zinema-eskolarekin, bai ikerketa-proiektuekin Udalarekin batera... Guk Donostian lan egiten baitugu, Autonomia Erkidego baterako, baina auzo baten barruan ere bai.

Bukatzeko, hona hemen laburbilduz nola lan egiten dugun UBIKen:



Egileari buruz



Arantza Mariskal Balerdi

Bibliotekonomian eta Dokumentazioan Barcelona Unibertsitatetiko Diplomaduna. Baliabide Kulturaletako Deusto Unibertsitatetiko Graduondoduna eta Dokumentazio Digitaleko Kudeaketako Catalunya Universitat Obertatiko Graduondoduna. Xenpelar Dokumentazio Zentroak (Zaindariarentzako dokumentazio gunea, kontserbazio eta bat-batean egindako ahozko euskal ondarearen difusio) 1990 eta 2009 bitartean abiarazi zuen eta zuzendu zuen. Tabakalerako taldeari jarraian batzeko. 2009tik Ubiken, Tabakalerako Sorkuntza Liburutegiaren, arduraduna da diseinuan eta definizioan bere lana, abiaraztea eta proiektuaren sendotzea erdiratzen dituen tokian.

3. TXOSTENA

Bitartekaritza, parte-hartzea eta interakzio kulturala. Berrikuntzako agenda estrategikoko kultura

JORDI PARDO

Pablo Casals Fundazioko Zuzendari Nagusia, Nartex Barcelonako eta Bartzelonako Cercle de Culturaren Lehendakariordeko Bazkide Fundatzailea

PERSPEKTIBA PROFESIONALA

Azken 25 urteotan, mugimendu berriak agertu dira, ekonomiaren mundura hurbiltzen ari zaizkigun joera berriak, arduradun politikoei mundu hori iruditzen baitzaie garrantzitsuena, egiazko botere-esparruetan. Eta ekonomia sortzailea da, zeren, batez beste BPGaren % 8 delako Europako herrialdeetan. Bartzelonan 115.000 lagunek lan egiten dute horretan. Zerikusia du zutabeekin, edo etorkizuneko garapen-eragileekin; eta


horiek ez dira izanen, ez meatzaritza, ez nekazaritza, ezta beste gauza aunitz ere. Gainera, ziklo honekin lotua dago: «Zu lurralde erakargarria bazara, eta kulturarekin halaxe izan daiteke, lurralde sortzailea izatera pasa zaitzke, eta, zenbaitetan, lurralde sortzaile horiek lurralde berritzailea izateko jautzia ere izan daitezke». Berrikuntza modu bideragarri eta sistematikoan aplikatutako sormena da. Enpresek egiten dute, baina hiri-proiektu batean ere egin daiteke, eta pertsonak egin dezakete. Hori egin daiteke New Yorken hirurogeiko hamarkadan Sohon gertatu zen bezala; hau da, jakin gabe, ekonomia sortzailea egiten ari ziren; behetik gora egin daiteke, *bottom up*; ekitaldi handiekin egiten saiatu ziren bezala egin daiteke, noiz arrakastaz, noiz arrakastarik gabe, goitik behera, hiri -proiektu bat edo itun publiko-privatu bat bezala ... Nire ustez, errazena da oreka bilatzen saiatzea, eta aldi berean, *top town* eta *bottom up* egitea. Goitik behera eta behetik gora Ahalduntzearen bidez eta zuzeneko parte-hartzearen bidez, lankidetzaren bidez eta baterako sorkuntzaren bidez egin daiteke, baina, baina, bistan denez, itunak eginda kultura dagoen sistema horretako beste eragileekin, eta horiek ez dira bakarrik kultur eragileak bakarrik..

«Zu lurralde erakargarria bazara, eta kulturarekin halaxe izan daiteke, lurralde sortzailea izatera pasa zaitzke, eta, zenbaitetan, lurralde sortzaile horiek lurralde berritzailea izateko jautzia ere izan daitezke».



Orain, harira joanen gara, bitartekaritzaz zergatik hitz egiten dugun ulertzeko. Kultur ekintzailatzatik heldu gara: diktaduran eta gerraostean kultura duintasunaren eta askatasunaren eta gauza askoren defentsarako elementua zen. Trantsizioarekin gertatu zena da

manifestazioetan zeuden batzuk administrazio publikora pasatu zirela, lanpostu bat irabazi zutelako, kontratatu zituztelako. Eta noski, garai hartan, gogora ekarri nahi dudan zerbaiti buruz hitz egiten zen. Nire belaunaldikoek gogoratuko dute: **soziokultura**. Ekintza soziokulturalaz hitz egiten zen. Lehen gizarte etxeak, lehen kultur etxeak, auzokideak, auzoak, landa komunitateak. Soziokulturaz hitz egiten zen. Geroago, 90eko hamarkadan, beste gauza bati buruz hitz egin genuen, **kultur kudeaketari** buruz, zeren, ondorioztatu baitzen ez zela beharrezkoa oso sortzaile ona, oso artista ona edo oso bitartekari ona izatea, baizik eta hori ongi planifikatu eta administratu behar zela. Eta, gainera, une honetan, administrazio publikoak, oro har, arrazionaltasunaren irizpidean oinarritutako administrazioaren hurrengo urratsa aurkitu zuen, hau da, eraginkortasunaren eta efizientziaren irizpidea; horra kudeaketan oinarritutako kulturaren mundua, ongizate-estatu aurreratuenen eskutik datorrena: Eskandinaviako mundua, Britainia Handia, etab., eta gu, berriz, tradizio kontinentalekook, burokraziarantz, administratiborantz lerratuagoak. Patronatuak sortzen dituzte, fundazioak, kulturaren eragile multzoa dinamizatzen hasten dira figura juridiko berriekin, publikoekin edo pribatuekin.



De la gestión a la mediación cultural

1. *Del activismo cultural a la sociocultura (1940 – 1990)*
2. *De la sociocultura a la gestión cultural (1990 – 2008)*
3. *Crisis económica, recortes públicos y los cambios sociales y tecnológicos 2009 – 2015...y siguientes)*
4. *Las nuevas perspectivas de cambio: participación, empoderamiento, mediación.... Necesidad de INNOVACIÓN*

Krisi ekonomikoak aldaketarako arrazoi asko dakartza. Ez bakarrik murrizketak, baizik eta krisia bizi duten pertsonen drama, eta, beraz, itxuraz lehenagoko gutxien duen gauzaren urruntzea, hau da, kultura, antzerkira joatea, zinemara. Baina, horrez gain, bor-bor dauden aldaketa teknologikoak. Eta oraingo etapan, oraindik ere krisiaren ondorioak agerian, ez gara lehenagoko horretara itzuliko. Beste etorkizun bat irudikatzeko etapa bat da, eta horregatik ari gara **bitartekaritzaz** hitz egiten.

Zeren, batzuetan aldatzea beharrezkoa baita, kontzeptuak aldatzea. Gogoratu Erroman Think Tank ahaltsu bat asmatu zela edo izena jarri zitzaiola lehendik zegoen zerbaiti, zertarako eta iraganeko akatsak, berrikuntzaren akatsak orainaldiko erabakiekin harremanetan jartzeko. Hitzen atzean engainu handia egon daiteke, hitz bat ez da deus: zer da adimena? Kontzeptuen kudeaketa da, logos. Hortik sortzen da hizkuntza, abstraitzeko gaitasunetik. Esaten dut, zeren zenbaitetan hitzen gatibu edo morroi baikara. batzuetan gatibu garelako, hitzen preso. Zer esan nahi dugu bitartekaritzarekin, eta zergatik ari gara bitartekaritzaz hitz egiten? Azken batean, une honetan mundu osoan ari gara hitz egiten, parte-hartzeaz, ahalduntzeaz, bitartekaritzaz. Azken finean, atzean dagoena gizateriaren historian iraunkorra den zerbait da, baina orain aldaketa basati, oso azkar eta sakon-sakonekin, eta hori **berrikuntzar**en beharra da.



ALDAKETAK SOILIK DA IRAUTEN. KUDEAKETATIK BITARTEKARITZARA?

Aldaketak soilik du irauten. Beti aldatu da. 90eko hamarkadatik aurrera jaio direnengatik diot; aldaketa beti egon da. Eta aldaketak kudeatzen jakin behar dugu. Zer da beharrezkoa nire ikuspuntutik? Proiektuan, ideian, produktuan, esperientzian berritzea. Norberaren kontzeptuan berritzea. Prozesuan, banaketan edo sarbidean berritzea. Batez ere gobernantzan berrikuntzak egitea, eta hori ez da gobernuaren ekintza, baizik eta nola parte hartzen duten dagozkienek prozesu horretan zuzenean edo zeharka. Nik leku gogorretan egin dut lan. Nik Suedian enpresa bat izan dut. Zoragarria. Baina ondorioa berbera da. Badakizue nola blindatzen den proiektu bat?

Ez konponbidea partekatzen denean, baizik eta jendearekin hitz egiteko diagnostikoa, arazoa partekatzen denean. Norberak ideia edo proiektu artistiko edo jai herrikoi bat badu eta jendearekin kontaktatzen badio eta bere euskarria bilatzen badu, jakina, hori garrantzitsua da, baina

askoz eraginkorragoa da bere ideia edo proiektua adierazi aurretik, proposamen bat izanik ere, arazoa partekatzea. Eta, jakina, kudeaketa, nola administratzen dugun, nola funtzionatzen duen, nork ordaintzen duen, nork kobratzen duen, eta nola finantzatzen diren. Jakina, ebaluazioan ere berritza.

Nondik gatoz? XIX. mendean, estatu liberalean, irakaskuntza publikoaz hitz egiten zen, arteez, zientziez; ez zen hitz egiten kultur politikez edo kulturaz. Ongizatearen estatuaren ondoren bakarrik hitz egiten da kultur politikez. Eta hortik Harremanezko Estatura pasatu ginen. Estatu oihartzaren denean aurrekontuak muga bat duela. Krisiaren aurretik ere jakin zen hori. Norbaitek ordaindu behar ditu gauzak. Orduantxe sartu ginen logika berrietan, besteenganako harremana behar dituzten logiketan.



Une horretan hitz egiten dugu **Kultura eta Garapenez**. Eta **ekonomia sortzaileaz**. Estatu Liberala merkatuen eraketaren garaikoa da. Dena da legea. Horren ondorioz, kultur eragilean lan burokratikoan sartzen dira, eta azpiegitura handiak sortzen dira. Museo nazionalak ere bai: El Prado, 200 urte, Louvre askoz zaharragoa da, 1791koa, edo Museo Britainiarra, 1753an. Baina hortik gatoz. Ongizatearen Estatuak, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, beste logika bat du, aurrekontuak muga bat duelako. Bat dator gizarte kontsumistaren garapenarekin. Hemengo batzuek gogoratuko dute: administrazio publikora joaten ziren, eta ia iraintzen zintuzten. Aldiz, negozio pribatu batera joaten ziren, eta atseginak ziren. Administrazioa urruna zen. Hori aldatu da, zorionez; edo nahiko. Zergatik? Herritarrek garelako, eta ez soilik erabiltzaileak. Eta orduan hasi zen eraginkortasunaz eta efizientiaz hitz egiten, 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran. Eta ingurune horretan hitz egiten dugu kudeaketa-inguruneaz. Kultur fundazioek funtzio publiko asko deszentralizatzen

dituzte, edo kulturara bideratutako enpresa publikoak sortzen dira. Eta beraz, egiten dena da errotu edo aitortu kultura bizi-kalitatearen faktorea dela eta eskubide kulturalak aitortzen ari direla.

«Badirau kudeaketan oinarritutako antolaketa horrek, hau da, eraginkor eta efikaz izateaz gain, emaitzak eta jarrera-aldaketak ere lortu nahi dira».

Baina dena aldatzen da. Harremanezko estatua eta ekonomiaren nazioartekotzea batera gertatu dira. Oraindik ere badirau kudeaketan oinarritutako antolaketa horrek, hau da, eraginkor eta efikaz izateaz gain, emaitzak eta jarrera-aldaketak ere lortu nahi dira. Jendearen jarrerak aldatzea; horretan ari gara orain; nola erakarri publiko berriak, nola eragin jendeak bere sormena eta adierazi eta bideratu dezan. Orduantxe mintzatzen gara sareez, kulturaz eta garapenez, ekonomia sortzaileaz, eta orduantxe sortzen dira gorabeherak eredu burokratiko tradizionalarekin.



Kulturaren zera hori zerbait berria da. Artea Altamiran zegoen, baina horren kudeaketa, administrazioa berria da. Horrek bere funtsezko unea izan zuen, hots, Malrauxek munduko lehen kultur ministerioa sortu zuenean. Espainian, 1977an izan zen. Era berean, funtsezkoa da Europa mailako kultur politikak egitea. Horrek ez du esan nahi tokikoa, edo eskualdekoa edo nazionala mespretxatzea, elkargainka jartzea baizik. Gaur egun, oraindik agerian daude krisiaren ondorioak, hau da, gastu publikoa kontrolatzeko legeak administrazioaren birzentralizazioa, arlo publikoko eta pribatuko kultur teknikariengan eragina izan duena. Zerbitzuak kanpora ateratzea, doikuntzak eta murrizketak, kultur sistema konplikatua edo ikuspegi

gutxikoak garatzea, eta kulturgintzan, kudeaketan, bitartekaritzan eta partaidetzan berritu beharra.

Zertan berritu behar dugu?

Niri iritziz, zertan berritu behar dugu? Zer dago kultur kudeaketatik kultur bitartekaritzara pasatzeko horren atzean? Hori beharrezkoa da, baina badira gauza gehiago. Berritzea:

1) **Sektoreen ikuspegi bateratuan**, gauzak beti baten batek ordaintzen ditu. Ezer ez da dohainik. Ikuspegi orokorra; zer mundutan zauden jakitea.

2) Prozeduretan.

3) **Azpiegituren eta kultur guneen zerbitzuen kartan**, kontzeptualizazioan edo erabileran. Kultur guneka berrikusi beharra. Bitartekaritza ere egin behar da, baina berrasmaketan eta berrikuntzan jardun beharra dago. Zer da berrikuntza? Aldaketak gauza berrien bidez sartzea.

4) Azpiegituretako zerbitzuen **kontzeptualizazioan**, erabileran eta kartan.

5) Proiektuen **administrazioan, kudeaketan eta finantzaketano**.

6) Eta, jakina, proiektuen **governantzan eta kudeaketan**.

KULTUR SISTEMAREN ERRONKAK

Kultur sistemaren erronka batzuk:

- **Publikoekiko harremana**, jakina: sarbidea, parte-hartzea, kontsumoa, ahalduntzea.

- **Artea, zientzia eta jakintza sustatzea, zabaltzea**, eta jendeak bere egitea. Ez dugu lan egiten antzokia edo jaialdi bat jendez betetzeko, baizik eta gauza garrantzitsuagoak lortzeko: duintasuna.

«Jada etorkizuna ez dago inperioetan; botere korporazio handiak (...) kulturako jendea fitxatzen dute honek berrikuntza-prozesuak sortzen dituelako. Arteak oraindik idatzi ezin dena, edo oraindik egituratu ezin dena adierazten du».

- **Berrikuntza gizarte, teknologia eta kultur** arloko aldaketara bideratzea.

- **Beste sektore batzuekiko isolamendua.** Beste sektore batzuei begiratzea. Horregatik da garrantzitsua antolatuak egotea.

- **Proiektuen bideragarritasuna eta finantzaketa.** Hasieratik pentsatzea: nola finantzatuko da?


- **Hiri eta landa proiektuen isolamendu estrategikoa administrazioan.** Bitartekaritza garrantzitsua da, baina funtsezko gauza bat jarri beharko genuke agenda sozialean, hots, kulturak duen balioa.

- Aldatu den beste elementu bat, hots, **kulturaren prestigio soziala.** Gauza bat da kultura eta beste bat entretenimendua. Kulturaren prestigioa askoz ere txikiagoa da 2019an duela 100 urte baino.



SEKTORE KULTURALEN AHULTASUNEN GAINDITZEA

Kultur sektoreen ahuldadeen supurazioa. "Bestea" laguntzaile/bazkide bat izan daiteke. Negozioen munduan ere badago, baina kultur sektoreetan sekulako distantzia dago; horra gure ahuldadeetako bat. Lankidetzak behar da, bai zure jarduera bereko jendearekin, bai beste sektore batzuetan ari denarekin. Aldatu beharreko beste gauza bat: batzuek uste dute eskubideak dituztela artista izate hutsagatik. Ez dut esan nahi sorkuntzari ez zaiola dirulaguntzarik eman behar, baina zein da horren itzulera soziala?





Proiektuek konpromiso maila bat izan behar dute garatzen diren lekuarekin, izan fisikoa, izan birtuala. Gero, egoa ederki gorde behar da. NIRE proiektua, NIRE museoa, NIRE kontzertua. Hori aldatu ezean... Ikuspegi irekia: arestian esan dudan bezala, aldaketa da gauza iraunkor bakarra. Hitz egin eta lankidetzan aritu behar da, besteen hitzak eta iritziak entzun, elkar banatu, batu, kultur eragileak gehiago egituratzea. Modu bakarra da finantzaketa eta prestigio soziala hobetzeko, kultur sorkuntza hobetzeko. Funtsezkoa da.

AGENDA SOZIALEKO SISTEMA KULTURALA

Bukatze aldera: kultura agenda sozialean eta instituzionalean. Funtsezkoa da, nik uste. Nola hobetu kultur sistemaren posizio orokorra? Badira argudioak. Ezagutzaren Gizartea garatzeko izaera estrategikoa. Horrek aldaketa gaitzak eraginen ditu. Hori nola bultzatzen da? Nola sortzen da? Heziketaren eta kulturaren bidez, duintasun intelektual handiagoaren bidez. Sormenaz ari naiz, Sormenerako gaitasunaz eta unibertsalarekiko, edertasunarekiko jakin-minaz ari naiz. Kulturaren oinarritutako gizarteek izanen dituzte gauzak errazago. Hori neurgarria da. Non da BPGa handiagoa? Jende kultuagoa eta hobeki heziagoa dagoen lekuetan. Beraz, ahalduntzea, aldaketa, ikusmina bultzatzea, artearen egitekoa, zientziaren egitekoa, eta ezagutza etorkizun kolektiboan.

Gainera, kultura ez da gastua. Espainian, kultur gastua % 1,7 da, eta BPGean, berriz, % 4,5eko eragina dauka zuzenean. Ez da gastua,

inbertsioa baizik. "Kultura diruz lagundua dago...". Barkatu, automobilgintza da dirulaguntzarik gehien jasotzen duen industria. Kulturak, gainera, lehiakortasuna ere eragiten du.

Identitateen eraikuntza eta gizarte kohesioa kulturen eta hezkuntza oinarritzen dira. Kultura Europako proiektua eraikitzeko elementu gisa. Hori funtsezkoa da errealitate bati itxura emanen dion zerbait eraikitzeko. Europako gainerako herrialdeekin gauza berdin gehiago ditugu bereizten gaituztenak baino..

Eta, jakina, entzun, hitz egin, partekatu, zuen artean antolatu. Horixe egiten ari zarete.

Egileari buruz




Jordi Pardo

Proiektu kulturalako kudeatzailea, esku-hartze urbanistikoko eta ondare-kudeaketako proiektuetan espezialitadeduna. Geografian eta Historian Lizentziaduna, Gizarte-Zientzien didaktikako DEA. Arkeologia Hispaniarreko Diplomaduna. ESADE-agaratiko Administrazio Publikoko Masterra. Zuzendaritza eta Erakunde Kulturalako Kudeaketa New York University eta ESADE-agaratiko Diplomaduna. Europako Hiriburu Kulturalak (ECOC) ebaluatzeko eta aukeratzeko Europako Batzordearen aditu independentea.

4. TXOSTENA

Nafarroako Esperientziak: Zuk Dance Performing Arts, Ópera de Cámara de Navarra eta Jabier Landa

Nafarroako Esperientziak jasotzen du oraingo honetan gonbidatutako hiru proiektuko bitartekaritzako lurreko lekukotasuna:



Z ZUK Dance Performing Arts

ITSASO A. CANO y MIGUEL PG

Guk artista eta sortzaile gisa ikusten ditugun gauzei buruz hitz eginen dugu, eta nola saiatzen garen egunez egun ditugun arazoan gaintetik jauzi egiten. Arte eszenikoan konpainia bat gara eta gure egoitza Madrilan dago, baina Nafarroan ere proiektu asko egiten ditugu. Dantzaz gain, bestelako jarduerekin lan egiten saiatzen gara. Antzokiak betetzen saiatu behar dugu; bestela, ez dugu inoiz aurrera eginen. Hau da, publikorik ez badago, ez da dantzarik kontratatzen, eta dantza kontratatzen ez bada, aurrekontuak apalagoak dira, eta horrek eragiten digu.

Nola hasi ginen gu bitartekaritzan? Espainian ez gintuzten programatzen. Nekatua nengoen deialdiak harat-honat bidaltzeaz, eta geure artean pentsatu genuen gure ikuskizunak beste toki batera eramane beharko genituela. Eta Asia aldera jo genuen. Eta behin hiruzpalau aldiz joan ginen. Baina ez genuen hango kultura ezagutzen. Ez genekien gure lanak interesa pizten ote zuen. Orduan, hango kultura pixka bat ikasten hasi, eta ohartu ginen zeren bidez iritsi beharra zegoen hango publikoarenganaino. Eta aurreko egunetan jarduera batzuk egiten hasi ginen, gu ezagutzeko. Eta asmatu genuen.



Bitartekaritza deialdi askotan ageri zen eta bitartekaritzaren inguruko kontuez. Baina ez zegoen argi. Atzerrira joaten hasi ginenean, hasi nintzen benetan konturatzen zer zen publikoarekin bitartekari izatea, eta bide horiek gure mesederako eta deialdi askotan ageri denaren onerako erabiltzen hasi ere: hau da, dantza eta kultura sustatzearen alde. Publiko berriak sortzeaz hitz egiten zen, baina, nire ustez, gaur egun, ez da horrelakorik. Madrilen, adibidez, publiko berriak sortzeko, kultur programazio guztia ezabatu beharko zenuke. Denetarik dago. Eskaintza hain handia izanik, ezinezkoa da publikoa gauza baterako zaletasuna sortzea. Deialdi



baten bidez ezin da. Poliki-poliki egin behar da. Bestalde, sortzaile berriak bultzatzeko, gune bat eman behar diegu sorkuntza egiteko, baina horrek ez du loturarik berrikuntzarekin. Izan dezake, baina bi bidetan sartzen gara. Beraz, egoera ikusirik, guk gure estrategia diseinatu genuen: joaten ginen tokietako jendea edo herriak aztertzea, hori oso garrantzitsua da publikoarekin bitartekari izaten saiatzeko.

«Publiko berriak sortzeaz hitz egiten zen, baina, nire ustez, gaur egun, ez da horrelakorik».

MATERIA

Materia Nafarroako Unibertsitatearen Museoa estreinatu genuen ikuskizuna izan zen. Nafarroako Gobernuaren laguntza bat izan genuen, diru laguntza txiki bat, eta proiektu honen interesgarriena da azken sormen fasea museoan bertan egin genuela. Egoera hori aprobetxatuz, entzunaldi bat egin eta Nafarroako hamabost dantzari hartu genituen, eta bi urte lanean emandako ikuskizunearan sartu genituen. Era berean, han izan ginen denboran, workshop-ak egin genituen ikuskizunaren argiztapenari buruz, jantziei eta tresneriari buruz, bideoak nola landu genituen, ikus-entzunezko lana dantzarekin,


antzerkiaren eta bideoaren harremanarekin ... eta bazkarietan eta afarietan, museoko ikastetxe nagusietara joan ginen, eta entsegua egun horretan nola joan zen aipatu genuen. Arte eszenikoak ikasten ari ziren pertsonak, adibidez, hurbil-hurbiletik ikusten zuten zer den entsegu bat eta zer den koreografoa bideo-grabaketa egiten duen pertsonarekin hitz egitea, zer den argiztazailea eta nola egiten duen prozesua entseguetan ... nahiko interesgarria da. Eta orain gustatuko litzaiguke ikuskizun hau beste leku batera eraman ahal izatea eta bertako dantzari talde bat hartu ahal izatea eta berriro prozesu bera errepikatzea.



DANTZAKO ERRIBERA

Duela gutxi, lehen asteburuan, Erribera Dantza Garaikideko Jaialdiaren lehen edizioa egin dugu. Jaialdi honetan ere, Miguelek esan duen bezala, musikariak ekarri ditugu, denak Nafarroakoak, eta Bilboko umorista bat. Zergatik egin nahi izan dugu dantza garaikidearen jaialdi bat Erriberan? Potentzial handia duelako; adibidez, Ribaforadak antzerki bikaina dauka, gaitasun tekniko ikaragarriak dituena, baina dantza ekartzeko aukera handirik ez duena. Adibidez, platea dauka, baina ez du dantzarako publikorik eta ez du dantza ziklorik. Jaialdi bat kalera eramateak publiko berriak erakarri ahal izan ditu, eta handik pasatzen ziren pertsonak interesatu ahal izan ditu, eta asmoa da, datorren urtean, inguruko beste udalerrri batzuek ere proposamenarekin bat egin ahal izatea eta INAEMi laguntza eskatzea jaialdi erreferente nazional bat egiteko. Jakina, egoitza nagusia Ribaforadan izanik, horiek baitira proposamena babestu duten lehenak. Jaialdi horri buruz esan behar da, halaber, asko interesatzen

zaigula Nafarroako dantzari, dantzari eta koreografoak indartzea, lana nondik hasi ez dakizulako edo zure lana nola erakutsi, "Karrera bukatu dut, eta orain zer?". Orduan, espazio bat ireki ahal izatea, jendeak bere koreografia txikiak erakutsi ditzan, eta gainera bere etxean izatea, oso interesgarria iruditzen zitzaigun. Jendea nazioartetik ere ekartzea.



URA

Azkenik, *Ura* proiektua dugu, guretzat oso proiektu garrantzitsua, eta ilusio handia egin digu proiektu hori gauzatu ahal izateak, oso garrantzitsua den gai bati buruzkoa baita; izan ere, oraintxe bertan uste dut denok lan txikiak egin beharko genituzkeela ekologiaren, plastikoaren eta zikinkerriaren problematikaren eta uretako kutsaduraren inguruan. *Ura* hilabetez egin genuen, Ribaforadako antzokian egoitza artistiko bat. Ribaforadak, txiki-txikia izanik ere, Hip Hop eskola bat du, hiri dantzako ikasle askorekin. Guk tailer horretarako egokitzen genituen adin batzuk hartu genituen, eta hogeita hamar ikasle erabili genituen. Hilabete eman genuen egunero jarduerak egiten, plastikoa biltzen eta ... interesgarrienetako bat izan zen gutako bakoitzak zazpi egunez kontsumitzen dugun plastiko guztia gordetzea: ... plastiko asko kontsumitzen dugulako. Pertsona bakoitzak plastiko hori ekarri zuen zuen, sekulakoa, eta gero, Ribaforadako egoitzaren azken egunean egin genuen ikuskizun batean erabili genuen. Plastiko horrekin eszenografia batzuk sortu genituen, eta jendeak ikusi ahal izan zuen dantzari bakoitzak zer-nolako eragina sortu zuen astebetean. Imajina ezazue hogeita hamar dantzarirekin zer-nolako plastiko kantitatea bildu zen agertokian

*«Jendea antzerkira hurbiltzen ez bada,
guk artea hurbiltzen diogu jendeari».*

Bitartekaritzari dagokionez ere, egin genuena izan zen koreografia batzuk kalean egin eta egun horretan koreografia ikustera hurbildu zen herriko jendeari proiektuaren inguruan hitz egin. Proiektuaren aurkezpena egin genuen... Pentsatzen dut hau guztiok oso argi daukagula bitartekaritzaren gaian: gaur egun dena internet bidez mugitzen da. Baina arteak kalera atera behar da, artea tabernara ateratzea. "Ribera en danza" ekimenean, adibidez, monologistaren piezak tabernetan egin genituen, jendea txikiteoan zegoenean. Tabernan zaudete, tabernara goaz, plazan zaudete, plazara goaz. Jendea antzerkira hurbiltzen ez bada, guk artea hurbiltzen diogu jendeari.



TXEMA LACUNZA

Esan behar dut bitartekaritzaren kontzeptua hain zabala eta azaltzeko hain zaila iruditzen zaidala, gu saiatu gabela fokalizatzen gaur egun gure bilakaera eragiten duten hainbat esperientzian. Baina betiere oinarritzat hartuta bitartekari izatea bi aldeen arteko komunikazioa arintzea eta aldeen arteko distantzia murriztea dela. Zentzu horretan, bitartekari iraunkor eta betierekoak sentitzen gara.

Beste gauza bat da konturatu ginela gailurretik hazi ginela, baina, gure ikuspuntutik, bitartekaritza oinarrian dago, eta Ópera de Cámara de Navarra (OCN) oso buelta garrantzitsua eman diogu. Gaur egun, OCNren sostengua oinarria delako, eta ez, gailurra. Gailurra, hain zuzen ere, azken muntaiak izanen dira, ongi egindako ikuskizuna izanen da, kalitate bikainekoa, uste baitut urteetan zehar talde tekniko eta artistiko oso interesgarria garatu dugula, baina oinarri iristeko beharra genuen. Eta nola sartzten gara oinarri? Gu ezagutzaren baliabideak



sustatzen saiatzen gara, eta, gainera, guk beti esan dugu ezagutzatik gozamina sortzen dela dela... Uste genuelako generoaren eta hartzailearen arteko zubia izan behar genuela, eta tematu gara hartzaile gaztea erakartzen. Jakina, jende helduari zuzendutako programak ditugu, baina baita nerabeei zuzendutakoak ere; hau da, pentsatzen dugu kalitatezko ikuskizun bat mundu guztiak balioesten duela, eta kalitatezko ikuskizun bat ezagutzetik gehiago balioesten dela, bai eta parte hartzeko prestakuntzatik ere.

«Kalitatezko ikuskizun bat mundu guztiak balioesten du eta kalitatezko ikuskizun bat ezagutzetik gehiago balioesten da».

OPERA ESKOLA

Esaten dudan bezala, oinarritik hasi ginen, eta oinarria konpainiaren barruko barne-prestakuntza batekin hasi genuen. Ganberako operak diru asko jasotzen du laguntzetan. Baina guk publiko guztiengana hurbildu nahi dugu. Orduan, opera eskola bat dugu, eta bertan haurrak dantzan, interpretazioan eta kantuan trebatzen ditugu. Baina ez da bakarrik eskola batera joateko prestakuntza bat; helburua haur horiek muntaketaren barnean barnean parte hartzea da, Horrek esan nahi du, lehenik eta behin, guretzat entzulea bezain garrantzitsua dela exekutatzailea. Funtsezkoa da, noski, ikuskizunek kalitatea izatea, baina, jakina, oso garrantzitsua da audientzia izatea....

EDUCÓPERA

Beste gai bat eskola da. Eskoletan esku hartu behar da, oso garrantzitsua da, eta funtsezkoa iruditzen zaigu, irakasleekin bat eginda. Generoak arlo asko barnebiltzen ditu. Beraz, eskolako esku-hartzea funtsezkoa iruditzen zaigu. Eta hainbat modutan egiten dugu. Modurik logikoena programazioaren bidez da: opera bat egiten dugun bakoitzean, eskolako funtzioen programazioa egiten dugu. Gida didaktiko batzuk egiten dira, ikastetxeetan tailerrak egiteko, ikasleek opera bat ikustera joaten direnean zer den jakin dezaten. Eta alderantziz ere egiten ari gara: eskolara joaten gara. Baina esku hartzeko ez ezik, parte hartzeko espazio gisa joango gara, eta beste programa bat dugu, Educopera izenekoa. Programa horretan, gazteen egungo problematikatik, sare sozialetatik eta LGBTI gaietatik hurbil dagoen libretoa garatu da, baina haiek beren ikastetxean antzetzuko den operaren partaide bihurtu daitezke. Gu ikastetxean egongo gara, eta, gainera, plastikako klasean beraiek arduratzen dira eszenografia edo atrezzoak egiteaz, benetan joaten garenean oso espazio txikiak direlako eta esku-hartze txikiak egin behar direlako. Baina dantza- eta kantu-tailerrak egiten dituzte... Egia esan, oso esperientzia aberasgarria da.




Beste gai bat: niretzat, proiektu izarretako bat, duela lau urtekoa, ikastetxeetan murgiltzea ere bada, baina haiek izanik operaren sorkuntzaren egileak. Opera bat egin genuen, Eloise, jada konposatuta zegoena; kasu honetan ez genuen sorkuntza lanik egin, baina Iruñeko hamaika ikastetxe izan genituen elkarrekin lanean, Barañaingo Auditorioan egin zen azken ikuskizun hartan, eta gero Tuterako Gaztambide Antzokian, 5.000 pertsona baino gehiago bertaratu baitziren. Zergatik? Neska-mutil guztien inplikazioagatik: ikastetxe

batek jantziak egiten zituen, beste batek eszenografia, Salesianos argiztapenaren gai teknikoaz arduratzen zen, beste batzuek publizitatearen gaia egin zuten... denon arteko lana.

ÓPERA AL CUBO

Bukatzeko, esanen dizuet helduen barnean ere badagoela txoko bat, opera helduarena. Benetan ez da gure jarduera xede nagusia. "Ópera al Cubo" izeneko ekimena da, jendea konpositoreekin, argiztazaileekin, libretistekin harremanetan egoteko. Opera bat nola sortzen den, eszenatoki hutsa nola ikusten den, kamioia nola deskargatzen den....





JABIER "CORTE" LANDA

Nire portafolio artistikoak dio **diziplina anitzeko artista** naizela, eta nire curriculumak, berriz, heziketa fisikoan lizentziaduna naizela. Ez dut in olako arte prestakuntzarik. Lo digo por contextualizar los proyectos que vamos a ver. No tengo ninguna formación artística... Ni grafititik nator, eskola artistikotzat jotzen dut, eta hor ikasi dut: kalean margotzen beste pertsona batzuekin, eta hor badago parte-hartze eta esku-hartze espontaneoak, eta garrantzitsua da grafitiak ekar dezakeena. Hori esanda, askotan tokatzen zait bitartekari lana egitea.

Uhartekoa naiz. Uhartan 17 urte daramatzagu jaialdi bat egiten. Irailean da, urtero, eta udalarekin elkarlanean egiten dugu. Cantamañanas kolektiboko kide naiz. **Hiriko artistak** edo **graffiti idazleak** garenez, kalean gaude, hor egiten dugu gure obra; beraz, herrietako jendearekin lotura zuzena dugu, eta belaunaldi guztiekin. Ez bakarrik jende gaztearekin. Gu saiatzen gara artista profesionalen erakustaldia eta tailerrak sustatzen, baita adierazpen libreko espazioak ere. Eta tailerrak lantzen ditugu, eta jendea inSPIratzeko erakustaldia lantzen dugu. Hori da gure filosofia.



FAC3S

Bi bideo aurkeztuko ditut. Horietako batek Fac3s du izena, eta Uharte, Atarrabia eta Burlata hiru herriren arteko proiektua da. Nik lotura zuzena daukat hirurekin, eta badago Hiruerri deitzen den kontzeptu bat, hiru herrien arteko lotura bat. Kasu honetan, proiektua bideoan jarriko dizuet eta askoz errazago ikusiko duzue, baina

auzotarrak mural horietan protagonista izatea zen asmoa. Hiru herrietako hiru mural dira:



Lehen bideoari dagokionez, helburua auzokideen parte hartzea izan zen. Eta hara, proposatu genuen castingera 300 pertsona etorri ziren, eta ez genuen halakorik espero. Baina helburua zen herrien arteko lotura sortzea, belaunaldien artekoa. Mural bakoitzean herri bakoitzeko pertsona bat zegoen, eta bakoitza belaunaldi ezberdin batekoa. Hor lotura bat sortu nahi genuen, ez bakarrik espazio horrekin eta zure herriarekin, baizik eta auzokideekin. Orduan, horixe izan zen polita, hain zuzen ere: grafitiak, arte urbanoak edo muralismoak **espazioarekiko atxikimendua** lortzen du, eta atxikimendua ere zure ingurunearekiko, zaintzarekiko, harrotasunarekiko, irakastearekiko.





LANDARTE: MURAL NEURONAL


Hurrengo proiektua Landarte da, berez, proiektu parte-hartzailea da. Kasu honetan, herri txiki-txiki batera joan nintzen, Petilla de Aragonera, nik ezagutzen ez nuena, eta haiek oso haserre zeuden, askotan herria mapetan ere agertzen ez delako. Orduan, haientzat garrantzitsua zen beren herriari ekarpen bat egiten diotela sentitzea. Lotura bat nahi genuen, **herriari modu artistikoan balio handiagoa ematea**. Ramon y Cajal ospetsua da, eta, haiek ere dioten bezala, kasualitatez baina hura herrian jaio zen eta hori nabarmentzen dute. Beraz, Ramon y Cajalen lan zientifikoa obra muralarekin lotzeko erabili genuen.

Normalean, mural parte-hartzaileak era askotan egin daitezke; etengabe egiten ditut herri askotan, eta egiteko modu eta aldaera asko daude. Kasu honetan, haiek sorpresa handia hartu zuten, uste baitzuten nik zerbait marraztuko nuela eta haiek beteko zutela. Eta gobernutik zirriborro bat eskatzen zidaten etengabe, eta nik esaten nien zirriborrorik ez zegoela, han eginen genuelako. Asko harritu ziren haiek ere, ideiarekin partaide izan zitezkeelako. Erronka bat izan zen, eta nahiko ongi lortu zela uste dut:



Ikusten duzuen bezala, bigarren honetan auzokideak bestela engeiatu ziren. Kasu honetan, interesgarriena **ideiak haiengandik sortu** direla da....Mosaiko bat bezalakoa da, baina eduki potente samarra du. Eta kasu honetan garrantzitsua den zerbait, hots, zikintzeak zuk sortu duzun zerbait dakar berekin. Zure eskuekin etxe bat

eraikitzea, oso atxikimendu indartsua baita. Eta gazteen kasuan, gaur egun, dena oso digitala da, dena oso garbia da eta internetez doa, eta ez dago ukitu edo idatzi beharrik, eta, esan bezala, zikindu egin behar da.



5. TXOSTENA

Kontatzeko forma berriak

IKER SEISDEDOS

Babeliako eta El Paísen Kulturako Idazle Nagusiko Zuzendaria

Oso interesgarria iruditzen zait bitartekaritzari buruzko topaketa, ni, ziurrenera, bitartekaritzen bitartekaritza egiten aritzen naizelako, hau da, jendeak jakin dezala gauza aunitz gertatzen direla eta, horregatik ere, buru makur etorri naiz topaketa honetara. Zeren batek beti sentsazioa baitu ez duela bere lana ongi egiten, jendeak zeren berri izan behar duen, hau da, zer den kultura nagusia El País bezalako egunkari batetik. Izan ere, kultura nagusitik espero izatekoa den horretaz haratago gertatzen denari buruz aritu beharko genuke: hots, instituzio handi, jaialdi handi eta izen handiez haratago. Proiektu berriak ezagutzeko ere etorri naiz. Eta hementxe duzue nire helbidea, nahi duzuen gauza oro jakinarazteko El Paísen, zeren, beti iruditzen baitzait, hiri hau, Iruñea, eta komunitate hau, Nafarroa, askotan iritsiezinak zaizkigula. Hori gertatzen bada, argi dago errua gurea dela, El Paísko kazetaria, eta nola funtzionatzen duen kulturak Espainian eta Madrilan.

IBILBIDE PROFESIONALA

Ni ez naiz kazetaria, zuzenbide ekonomikoa ikasi bainuen Deustuko unibertsitatean. 40 urte ditut eta oso gazte hasi nintzen egunkarian. Kazetaritzako masterra egin nuen, eta hori izan zen sarbidea; funtsean, El País egunkarian sartzeko modua da aspaldidanik: master bat egitea han bertan, Madrilgo Unibertsitate Autonomoarekin partekatuta, eta zortea baduzu, bekadun gisa geratzen zara, eta gero zorte pixka bat gehiago baduzu, han lanean geratzen zara, edo lehenik kolaboratzaile gisa. Egunkariko hainbat sailetan aritu ondoren, kultura saila egiten dut, egunero informazio aunitz ematen duena interneten eta bizpahiru, hiru edo lau orrialde inguru paperean, eta gero Babelia gehigarria, El Paísko kultur informazioko larunbatetako gehigarria.



EDUKI AUKERAKETA

Askotan jendea ez da konturatzen kazetaritza lanbidea zenbateraino aldatu den. Adibidez, ni lanean hasi nintzenean, 2003an, Kultura sailak 7 edo 8 orrialde zituen; ostiraletan, 10 edo 12, zinemako estreinaldiak ematen zirelako, eta orain, normalean, 3 edo 4, eta askotan beste atal batzuekin borrokatu behar izaten dugu guri ez kentzeko edo pixka bat gehiago lortzeko.

Gainera, egunkarietako lantaldeak gero eta urriagoak dira. Duela urte batzuk, 2012an, oso ERTE traumatikoa egon zen El Paísen, eta jende pila bat bota zuten, eta horrek plantillak dezente murriztea eragin zuen. Ni Kulturaren lanean hasi nintzenean, 20 lagun ginen, eta,


orain, gutxi gorabehera, 10-12 gara. Horrek esan nahi du ezin zaiola erreparatu Espainian eta atzerrian kulturgintzan gertatzen ari den guztiari. Orain, gure lanaren zati bat, lanaren gauzarik zailena, argitaratzea zer merezi duen aukeratzea da.

Zer argitaratzea merezi duen aukeratu behar izateak esan nahi du askotan, edo ia egunero, edo egunero, gaizki egin izanaren sententzioarekin joaten garela etxera, oso zaila delako alde batetik gauzak lehenestea, eta batez ere, irakurleek zer nahi duten ulertzea.

IRAKURLEA EZAGUTZEA

Teknologiak ahalbidetu digu pixka bat hobeki jakitea nolakoak diren gure irakurleak Chartbeat bezalako tresnekin; jendeak une honetan zer ikusten ari den jakiteko aukera ematen dizu. Alde batetik esaten dizu zenbat jende dagoen une horretan egunkaria ikusten.

Zer gertatu da azken urteetan? Audentzia handiagoak lortzeko lasterketa bat egon dela eta hori ezin dela beti Schopenhauerri buruzko artikuluekin egin, harrituko bazintuzte ere.




ERALDAKETA DIGITALA

Hori da hedabideetan gertatzen den ohiko gauza: bat-batean guruek esaten digute gauza bat egin behar dugula, eta bost urteren buruan kontrako esaten digute. Prentsaren guruak horrelakoak dira. Gauza seguru bakarra da beti duela bost urte baino diru gehiago

irabazten dutela. Baina haien joerak beti kontrajartzen dira, aldatuz doaz. Horregatik uste dut interesgarria dela komunikabideen gaia oro har, baina, era berean, uste dut interesgarria dela orokorrean beste gauza batek sekulako eragina izan duelako: eraldaketa teknologikoaz ari naiz. Eraldaketa digitala duela hamar urte inguru hasi zen, baliagarria izan daiteke bizitzaren esparru askotarako, oro har, enpresentzat, bai eta baita kultura kudeatzeko ere.

KULTURAKO BITARTEKOAK

Gu, komunikabide gisa, bitartekariak gara alde bateko eta besteko hedabide askoren artean; hau da, kulturaren eta irakurleen artean, bitartekari gara artisten eta irakurleen artean, kultur kudeatzaileen eta irakurleen artean. Ez gaude artisten interesak defendatzeko, edo ez bakarrik horretarako, baina bai askotan parte sentitzen garela. Orduan, uste dut kulturgintzaren eta politikarien artean ere bitartekari lanak egiten ditugula, edo kulturaren eta egunkarietako zuzendarien artean.



LAN EGITEKO ERA BERRIAK

Orain, esperimintatzen ari garena da aunitz aldatu dela lan egiteko modua. Garai batean, gutxi gorabehera, arratsaldeko ordu batean iristen zinen egunkarira, prentsa-ekitaldi batera joan ondoren, eta zure artikulua alde lan egin behar ziaten zenuen. Gero, arratsalde erdian idatzi, eta 8etan ixten zen. Hurrengo egunean gauza bera. Hori orain ez da horrela. Egia da paperaren itxierak egunkari baten bizitza baldintzatzen jarraitzen duela, baina, aldi berean, nahiko garrantzirik gabekoa izatera pasatu da. Nik, paperaz maiteminduta


nagoenez eta egunkariak eta aldizkariak erosten jarraitzen dudanez, beti pentsatzen dut nire bizitza askoz hobea izanen litzatekeela El Paísek bere edizio inprimatua itxiko balu, jatorrizko hedabide digitaletan lan egiten duten lankideak ikusten ditudalako, paperik ez dutenak, eta aldi berean bi gauzez arduratu beharrik ez dutenak. Nire lana eta kezka da paperezko edukiak nola itxi eta, aldi berean, webgunea nola hornitu egunean 24 orduz, astean 7 egunez. Alde horretatik, bizitza asko aldatu zaigun arren, kazetariok askotan jarraitzen dugu istorioak duela 10 edo 15 urte kontatzen genituen bezala kontatzen.

Adibideren bat jarriko dizuet. Aurreko egunean Bilbon egin nuen pieza bat da hau. Lucio Fontanak Bilboko Guggenheimen duen erakusketa bati buruzko informazioa da. 800 hitz inguruko informazioa, paperean gutxi gorabehera sartzten dena, eta argazki bakar bat duen informazioa da. Demagun informazio bat aberasteko lehen fasean egonen ginatekeela.

Kontua da gaur egun, gai bat horrela aurkezten duzunean, ez direla gauzak kontatzen ari gaur kontatu beharko liratekeen bezala, hau da, batzuetan ez zara gehiagora iristen. Bilbon nengoen eta ez nituen lankideak kargatu nahi eta, finean, Guggenheimgo erakusketa bat da, eta ez zegoen oso prestatuta, eta agian, ez zuen bisita gehiegirik izan eta, agian, ez da ezer gertatzen.



Baina gauza bera honela kontatu daiteke: Hala kontatu, adibidez, zuen New York Times-ek. Ez da erakusketa bera, New Yorkeko Metropolitanen ikusgai jarritakoa baizik, eta ikusten duzuenaz, aurkezpena askoz ere erakargarriagoa da.



Hau Ingalaterrako Reuters albiste agentziak rohingya eremuetako bizitzari buruz egindako erreportajea da. Bangladesheko hondamendi humanitarioaren historia ezagutzen duzue? Alde batetik, norberak libreta batekin bil dezakeen informazioa dute, eta, ondoren, testu bat idazten dute, baina askoz modu erakargarriagoan aurkezten dute, eta askoz gehiago gehituz. 20 bat lagun arituko ziren lanean, nik uste.

EDUKI-ONESPENA ETA BANAKETA

Nola erabakitzen dugu zer aterako den El Paísen? Nik bi lan erritmo ditut: batetik, Babelia astekaria, eta bestetik, eguneroko informazioa. Jende aunitzek uste du kultur kazetaritzak funtsean kultur ekitaldiak sustatzen diharduela, baina guk ere albisteak ematen ditugu. Informazioa zuzentasunez tratatzeaz gain, beste gauza bat egiten ere saiatzen gara, hots, ikustea zer den garrantzitsuena El Paísko egunkariaren irakurlea den pertsona horrentzat, ezagutzen ez dugun pertsona horrentzat.

Guk informazio hori dugunean, nola banatu erabakitzen dugu, Babeliarako edo Kulturarako ote den. Oro har, informazio kutsu handiagoa badu, Kultur atalean joanen litzateke, eta gauza pausatuagoak edo kritikak edo elkarrizketa sakonagoak, berriz. Beste ezberdintasun bat ere badago, hots, zerbait paperean doan edota soilik webean. Hori interesgarria da, askotan geure buruari galdetu baitiogu bi Kultur sail egin beharko ote genituen.

PUBLIKOAREN INTERESAK

Publikoari buruzko informazio aunitz dago, baina zure eskaintzan sartzen ari den publikoarena da, eta informazio asko daukagu eskaintzari buruz, eta horrek, neurri batean, ez dugunari buruzko informazioa eman dezake; hau da, iristen ez garen publikoari buruzko datuak eman diezazkiguke, baina nire galdera da: Benetan, informazio horrek arrastoak ematen ditu, balio du? Guri arrastoak ematen dizkigu, baina garrantzitsua da ez engainatzea. Adibidez, gehiago edo gutxiago, argi daukat Kultura sailaren barnean zer eduki interesatzen diren gehien. Zinema eta musika interesatzen dira gehien, eta gero

arte, antzerkia, baina nik horregatik ez dut dantza baztertzen. Dantzak, oro har, ez du interes handiegirik pizten, baina horrek ez du eragina nigan.



MUGAK

Beste gauza batez ere hitz egin nahiko nuke. Espainiako kulturak duen arazo izugarria da, eta herrialde guztietakoak ere bai, nik uste. Kulturaren zentraltasuna da. Madrilen eta Bartzelonan gertatzen denaren berri ematen dugu, eta agian Valentzian gertatzen denaren berri, eta pixka bat Sevillakoa eta batzuetan, Bilbokoa, eta kito. Zerikusia du egunkarietako berriemaileen sareekin. Uste dut askotan leku horietan, Iruñean adibidez, ezinezkotzat jotzen gaituztela eta ez direla saiatzen gertatzen denaren berri izan dezagun. Aurrekontua ere arazo da: denera iristen saiatzen gara, baina ezin dugu, ez dugu jende nahikorik; saiatzen gara gonbidapenak ez onartzen. Ez dut esaten gonbidapenik onartuko ez dugunik, gezurra litzatekeelako, baina saiatzen gara gauzetara geure kabuz joaten, bestela oso erraza izanen litzatekeelako El Paísen ateratzea.

Oreka ere mantendu beharra dago Espainiako eta atzerriko informazioaren artean. Europako egunkari bat izateko asmoa dugu eta bisiten erdiak baino gehiago Latinoamerikatik jasotzen ditugu, baina ez dugu zertan emanik etengabe Metropolitanen eta MOMAn dagoenaren berri, Arkeologia Museo Nazionalean zer gertatzen den kontatu gabe.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Telebistak zer leku du El País Culturaren barnean? Telebista amaierarantz dagoen orri bat da, programazioaren ondoan; batez ere, edukiez hitz egiten da. Alde batetik, mundu guztiak ikusten duen telebista dago, "Mundu guztiak" zer esan nahi duen ere ikusi beharko litzateke, baina kate generalistak dira, ... eta gero plataforma berri

guztiak daude, oro har telebista egiten duten kazetarioi askoz gehiago gustatzen zaizkigunak, eta batzuetan, egun osoan telesailez hitz egiten ari gara. Oreka konplikatu da baina gauza interesgarriak sortzen ditu.



Beti dago eztabaida telesailak telebista sailetik atera eta Kulturara pasatu beharko ote liratekeen, ematen baitu unean bertan gehien kontsumitzen den kultura-produktua dela, eta horrek telebistaren kasuan ere eragiten du, askotan informazio zinematografiko bat tratatuko genukeen bezala tratatzen baitugu: industriaren eta sormenaren ikuspegitik.

NAZIOARTEKOA

Nazioarteko edukien kontuari buruz, orain gehien inporta zaiguna Latinoamerika da, eta interesgarria da, Latinoamerikako edizioa daukagunetik, eta enpresa konturatu zenetik Espainiako merkatua oso heldua eta polarizatua dagoela; hau da, jende askok ez du inoiz El País irakurriko, askok ere ABC irakurriko ez duten bezala. Orduan, nola egiten duzu Latinoamerikarako informazioa? Hasieran akats franko egin genituen, Latinoamerikako irakurleek guk Latinoamerikaz hitz egitea nahi zutelakoan; baina, aldi berean, Parisen zer gertatzen den kontatzea interesatzen zaie.

«Espainiako merkatua oso heldua eta polarizatua dago».

ISTORIOAK

Zer osagai izan beharko luke Iruñean egindako zerbaitek, Babelian, Kultura sailean eta abarretan lekua izan dezan? Askotan informazio zehatzetik haratago doan zerbait egiten saiatzen naiz. Hori bai, egia da Iruñean eta beste leku batzuetan egiten diren ekimen asko eta asko interesgarriak direla, beren istorioengatik. Nik batzuetan gomendatuko nieke hedabide handi baten arreta erakarri nahi duten kultur kudeatzaileei istorio bat aurkitzen saiatzea. Niri deitzen badidate



eta esaten badidate, "Jaialdi bat dugu". Gaur etorri naiz, eta "EcoZine, de cine y medio ambiente" ekimena ikusi dut: hori da momentuko gai nagusia. Badira beste adibide batzuk: Flamenco On Fire saiatu da edo lortu du, badakit ez dela zehazki tokiko ekoizpeneko kultur ekitaldi bat, baina lortu du bere lekua aurkitzea. Ez da hain garrantzitsua erakunde handi bat egotea horren atzean, baizik eta atzean istorio bat egotea.

PUBLIKO GAZTEA

Irakurleak azpibalaratzeko arriskuaz hitz egin dut. Publikoa azpibalaratzeko arrisku kulturalan ere badago. Alde batetik, kasu handiegia egiten diegu: oso kezkatuta gaude beraiekin, nik uste dudalako haiek ere ez dutela behar, eta millennialeri buruz ari naiz. Centennialsena beste kontu bat da: 95etik 2005era bitartean jaio ziren eta horiek mundura ateratzen hasiak dira. Baina zer nahi duten interpretatzen saiatzen garela uste dut, eta, aldi berean, guk eta era guztietako markek izugarri gutxiesten ditugu. Pentsatzen dugu ez dutela irakurtzen, ez dakitela nor den Unamuno eta gauza horiek guztiak, eta nire ustez ez dira egia.. Nik Arte Ederretako zentro batean ematen ditut eskolak, eta urtetik urtera ikusten dut jendea erneago dagoela. Batzuetan pentsatzen dugu dena eginda eman behar zaiela, eta hori kaltegarria da. Zaila al da haiengana iristea? Batzuetan, bai, baina iristen denean oso ondo erantzuten dutela uste dut.

NITXOAK

Beste zerbait esango dut. Nitxoena: ez dakit konturatu zareten "nitxoak" kazetariak eta lurperatzaileak bakarrik erabiltzen duten hitza dela. Kultura oso nitxo moldekoa denez, kulturari buruzko kazetaritza hazi egin da ekonomia balorazioan. Izan ere, jendeak edukien arabera ordaintzea proposatzen da, baina horretarako, sekretuetako bat jendeari oso gauza zehatzak ematea da.

MUNDUAN EGOTEKO ERA BERRIAK

Al dago arreta piztu dit bitartekaritza-historiarik? Adibidez, Centro de Artes Vivas zentroan egiten ari direna, edo Teatros del

Canal-etan, egiten ari direna ... Madril oso hiri kontserbadorea izan da oro har, azken lau urte hauetan izan ezik, eta bestelako gauzak egin dira. Ni musika esperimentalaren zalea naiz. Musika beste gai bat da, musikan ez dago modurik, Verdirekin jarraituko dute, Rigoletto eta horrelakoak. Nik antzerki esperimentalak ikustea nahiago, berriz ere Doña Francisquita baino.



Nik, atzean istorio on bat baldin badago, berdin zait 25 lagunentzako gauza bat izatea. Adibidez, duela gutxi, Conde Duque zentroak proiektu bat egin du. Liverpooletik heldu diren mutilak dira, espainiarrak. Hirian zehar paseatzea proposatu dute, kaskoak jarrita, metroan barna, haiek emandako aginduak betez. Bestalde, duela gutxi Veneziako biurtekoan egon naiz, eta hango gauzak nik uste dut edozeini interesatuko zitzaizkiola; ez dena, egia da.

Jende askok uste du arte garaikidea iruzur bat dela, baina ez dakit ikusi ote zenuten zeinek irabazi zuen Veneziako Urrezko Lehoia, hots, Lituaniako pabiloiak. Ikusleak balkoi gisako batean zeuden, eta behean, berriz, Lituaniako hondarra zuen hondartza bat, eta 13 pertsona zeuden etzanik, Benidormeko hondartzan baleude bezala, performance bat abesten eta egiten; opera-abeslariak ziren, eta klima-aldaketaz mintzo ziren.

«Gure denboraz hitz egiten duten gauzak daude eta bista izan ezik atzera botatzen dute eta kontatzeko forma berriak behar izaten dituztela».



Egileari buruz



Iker Seisdedos


Kazetaria. Deusto Unibertsitatetik Eskubide Ekonomikoko Lizentziaduna. Unibertsitate Autonomoaren Kazetaritza Masterra ikasi zituen eta El Paísen 2004tik lan egiten du. Pasatu da El Viajero, El País Semanal, Tentaciones, Domingo eta Ideas sailengatik. Azken honetako bere arduraduna izan zen. Gaur egun Babeliako eta El Paísen Kultura sailaren idazle nagusia da. Gainera, El Estado Mentalen argitaratzaile elkartua da.

***Iker Seisdedos Artikuluak**



Patrocina
Babeslea

 **FUNDACIÓN**
CAJANAVARRA

 **Nafarroako Gobernua**
Gobierno de Navarra

Colaboran
Laguntzaileak



Avuntamiento de
Tafalla
Tafallako Udala

DN
DIARIO DE
NAVARRA

Organiza
Antolatzailea



Gestión Cultural Navarra
Nafarroako Kultur Kudeaketa